

Antolakuntza  
**Ponentzia**

**ERAIKI** orain da garaia  
**DEZAGUN** **LANGILEON**  
**EUSKAL HERRIA**

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

**ZORZI.**  
biltzar nagusia





Antolakuntza

# Ponentzia

# › Ponentzia A

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

Ponentzia hauen jatorrizko bertsioa euskarazkoa da. Erdarazkoa itzulpena da. Horrelaxe hartu behar da kontuan biltzarraren prozesu osotik zehar.

# Aurkibidea

1. METODOLOGIA .....	7
2. LAU URTEKO ESPERIENTZIAREN ERREPASOA .....	9
2.1. Berrikuntzen balorazioa	
2.2. Gure ordezkariak zabaltzen	
3. HURRENGO ZIKLOAREN APUSTUA .....	17
3.1. Erakunde oso bat interbentzioari begira	
3.2. Zuzendaritza organoen papera	
3.3. Sektoreak indartu federazioen apustuan sakontzeko	
3.4. Eskualdeak gure interbentzioaren oinarria	
3.5. Sail sindikalak	
3.6. Herri Biltzarrak	
3.7. Planifikazioaren beharra	
3.8. Militantziaren protagonismoa ziklo berrian	
3.9. Idazkaritza garrantzia	
4. GURE ORGANIGRAMAREN EGOKITZAPENAK .....	31
4.1. Biltzar Nagusia	
4.2. Nazio Biltzarra	
4.3. Komite Exekutiboa	
4.4. Eskualdeak	
4.5. Prestakuntza Idazkaritza	
4.6. Lan Osasun Idazkaritza	
ESTATUTUAK .....	37

## › **Ponentzia** **A**

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

(1) Sindikatuko militantziari ponentzien aurkezpenaz eta ondoren burutuko dugun eztabaidaz hasiera eman diogu 8. Biltzar Nagusiaren prozesuaren unerik ikusgarrienari. Izan ere, ekainean, ponentziak berretsiko ditugu, militantziak egindako ekarpenekin osatu eta gero.

(2) Batzuentzat, prozesua une horretan amaituko bada ere, beste batzuentzat, lanketaren hasiera edo jarraipena besterik ez da izango. Azken finean, biltzar Nagusian sindikatuaren ildo estrategikoak ziklo baterako eztabaidatzen eta onartzen ditugu. Eta horixe da, hain zuzen, bere funtzio nagusia.

(3) Hala ere, egiten dugun gogoetarako inguruan sortzen eta gertatzen diren beste-lako errealitateak kontuan hartzen ditugun moduan, gure eztabaida amaitu ondoren ere, sortzen doazen eskenatokiak aztertu eta, horren arabera, gure gogoeta eta interbentzioa gutaz aparte suertatzen diren errealitateetara egokitu eta gaurkotu behar dira etengabe.

(4) Beraz, guk ekainean izango dugun argazkia ez da fotograma bakarrekoa; pelikularen gunerik inportanteena izanik, sekuentzia oso baten atala besterik ez da.

(5) Gogoeta hau antolakuntzaren eztabaida honetara ekarrita esan nahi duena da gure antolakuntza eredu oinarritzekoak diren fundamentuetan nahiko definitua eta garatua badugu ere, ezin dela gauza estatikoa izan.

(6) Antolakuntza, ekintza sindikala edo interbentzio politikoa bezala, behin eta berriro egokitu behar da. Horrekin ez dugu gure antolakuntza ereduaren diseinu zentrala zalantzan jartzen, ez dugu aldatzeko asmorik, baina kontzienteak gara gure interbentzioa garatzeko ditugun bitartekoak egokitu behar ditugula, errealitate politiko eta sozio-ekonomiko aldakorrari modu eraginkor batez aurre egin nahi badiogu.

(7) Hau eta gero, esan behar da ondoren irakurriko duzun ponentzian aurkituko dituzuen gogoetak eta proposamenak norabide batean doazela: azken urteetan inplementatu eta garatu dugun antolakuntza eredu indartu eta sakondu nahi dute. Beraz, euren helburu bakarra dugun eredu hobetzea eta egunerokoan ikusi ditugun gabezia edo disfuntzioak gainditzea da.



# › **Ponentzia** **A**

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa



# 1. Metodologia



(8) Aurreko Biltzar Nagusietan antolakuntza ponentzia eztabaidatzean gure antolakuntzaren eredu osoa jasotzen genuen; hau da, eredu osoaren balorazioa eta proposamena egiten genuen. Beste era batean esanda, eredu osoa eztabaidagai jartzen genuen.

(9) Oraingoan egiten dizuegun eztabaidarako proposamen honetan bi euskarri izango ditugu: antolakuntza ponentzia bera eta sindikatuaren Estatutuak. Metodologia honen arabera, alde batetik, ponentziak ziklo honetarako eztabaida jasotzen du eta, bestetik, Estatutuek gure antolakuntza eredu.

(10) Honela, ponentzian gure ereduaren inguruan egiten dugun balorazioa, ereduaren filosofia eta egungo ereduaren gainean proposatzen ditugun egokitzapenak agertzen dira. Hauxe da gure sindikatuak benetan egin beharreko eztabaida.

(11) Estatutuek orain arte sindikatuaren ezaugarriak eta helburuak jaso dituzte. Aurrerantzean, horretaz gain, gure Estatutueta ezaugarri eta helburu horiek aurrera eramateko ditugun tresna organizatiboak ere jasoko dituzte.

(12) Gure antolakuntza eredu osoa Estatutueta bilduta, nolabait gure organigrama normatibizatzen dugu eta, honekin batera, eztabaida bera zentratzea lortzen dugu. Hau da, antolakuntza eztabaida hobetu, zuzendu edo egokitu nahi ditugun arloetara bideratzen dugu.

(13) Burutuko dugun eztabaidaren ondorio organizatiboak Estatutueta jasoko dira, auzitan edo zalantzan jartzen ez diren egiturekin batera.

(14) Hemendik aurrera, ondorengo Biltzar Nagusietan antolakuntza ponentziak eztabaidatzen ditugunean, metodologia bera izango dugu: hobetu, zuzendu edo aldatu nahi ditugun atalak soilik aztertu eta, erabakitakoaz, Estatutueta egin beharreko egokipenak egin.

(15) Honek ez du esan nahi ponentzian agertzen ez denaz ezin denik eztabaidatu. Edozein afiliatuk ekarpenen bitartez gure ereduaren inguruko zalantzak, zuzenketak edo aldaketak proposa ditzake.

(16) Era berean, balorazio atala lantzeko orduan, arau berdina erabili dugu. Beraz, balorazioa egiteko garaian, egitura guztien goitik beherako errepassoa egin beharrean, sakondu nahi ditugun arloetan zentratzea erabaki dugu, hain zuzen ere.

(17) Honekin, bikoizketak ekiditearren, hemen jasota egon zitezkeen balorazio batzuk ez dira islatu, kudeaketa txostenean jasota baitaude honezkero.

(18) Azkenik, ondorengo testuaren atal batzuk sindikatuaren egitura desberdinetan egindako "Eraberritze Urratsa" hausnarketa prozesuaren ondorio dira. Prozesu honek hainbat fase izan ditu, baina une berezia izan zuen 2011ko abenduaren 15ean Donostian egindako Nazio Biltzarrean eta bertan eztabaidagai izan ziren ondoren agertzen diren zenbait gogoeta eta planteamendu.

# › P o n e n t z i a A

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa

## 2. Lau urteko esperientziaren errebasoa



### 2.1. Berrikuntzen balorazioa

#### Belaunaldi berri bat

(19) 2008ko maiatzean, gure 7. Biltzar Nagusia egin genuenean, gutxi batzuek imajina genezakeen urte bereko udazkenetik gaur arte pairatzen ari garen egoera ekonomiko-finantzieroa etor zitekeenik eta krisialdi honek langileei eta herritarrei oro har erakarri dizkien inposaketak eta aldaketak gertatuko zirenik.

(20) Lau urte oso gogorrak izan dira eta izaten ari dira. Euskal Herrian eta Europan inoiz ezagutu ez den krisirik sakonenetakoa pairatzen ari gara eta horren ondorioz arlo publikotik ezarri eta ezartzen ari diren murrizketek eta Madrilgo zein Pariseko Gobernuak inposatu dizkiguten erreforma desberdinek markatu dute lau urteko agenda sozial, politiko eta ekonomiko osoa.

(21) 7. Biltzar Nagusian antolakuntza arloan genituen erroka desberdinen artean, zalantzarik gabe nagusietariko bat belaunaldi aldaketa zen. Militante belaunaldi berri oso bati egokitu behar zitzaion sindikatuaren ardura eta zuzendaritza hartzea.

(22) Arduren aldaketa hau koadro militante askorentzako zuzendaritza organo batekin bere lehenengo harremana izan zen. Aldaketa honen isla argiena Nazio Komitea da. 7. Biltzar Nagusian organo honen osaketak erabateko aldaketa izan zuen eta.

(23) Aldaketa guztiek beren egokitzapen fasea, beren denbora behar badute, honetan horrelakorik ez da egon. Ez dugu trantsizio lasai bat egiteko aukerarik izan.

(24) Berezko aldaketak sortzen duen trantsizioarekin batera, hau da kide berriek organo honetan izan beharreko paperena egokitzea, ardura berriaz jabetzea, krisiak sortu duen eraldaketarekin batera uztartu behar izan genuen. Koiuntura ekonomiko honetan sindikatuaren belaunaldi aldaketa egitea ez da lan xamurra izan, beraz. Kanpoko aldagaiek asko markatu zuten aldaketaren hasiera.

(25) Orain, denboran atzera begiratzen dugunean eta lau urte hauetako ibilbideari erreparatzen diogunean, egindakoaz jabetzen gara. Bidea ez da erreza izan, baina aldaketekin batera normalak diren uneko urduritasunak eta zalantzak berehala gelditu ziren atzean. Beste krisialdirik ezagutu ez zuen belaunaldi batek 2008ko urritik aurrera LAB sindikatuak izan duen protagonismoa eta interbentzioak krisiaren aurkako dinamiketako erreferente bihurtu du.

(26) Argi dago hori ez dela belaunaldi honen meritua besterik ez. Egoera honetara ailegatzeo ardura handia dute aurreko belaunaldiek, bidea erakutsi baitziguten. Beraiek izan dira urteetan elikatu eta ureztatu dutenak gure barruan dagoen hazia.

#### Federazioak

(27) 7. Biltzar Nagusian gure eredu organizatiboari egin genion berrikuntzarik nagusia federazioen sorrera izan zen.

(28) Apustu honek helburu argia eta ia bakarra zuen: federazioen bitartez sektoreak eta azpisektoreak elikatzea, gure interbentzio sindikalean sakondu ahal izateko.

(29) Horretarako Federazio bakoitzean hiruzpalau pertsonak osatutako lan talde bat eratu nahi genuen. Talde honen funtzio eta ardura nagusia zen federazio horretako sektore zein azpisektoreetako azterketa edo ebaluazioa egitea, ondoren ekintza sindikalaren interbentzioa diseinatu, inplementatu eta jarraipena egin ahal izateko.

(30) Lau urte hauetan arlo sindikalean gauza asko pasa dira (krisiak, espedienteak, mobilizazioak, erreformak, grebak, hauteskunde sindikalak, e.a.). Egoera hauetan guztietan sindikatuak izandako jarrerak zein langileek sindikatuaren planteamenduekin bat etorrira eman duten erantzunak asko laguntzen dute balorazioa egin ahal izateko.

(31) Aipatu ditugun aldagai horiek guztiak kontuan izanik, esan dezakegu federazioen bitartez sindikatuaren interbentzioak ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan irabazi duela.

(32) Ibilbide honen hasieran ohikoak ziren federazio eta sektoreen arteko zalantzak: bakoitzaren papera, garatu beharreko funtzioak eta bakoitzak izan beharreko protagonismoa.

(33) Zalantza horiek berehala uxatu ziren eta federazioek, denbora laburrean, bizi eta inposatu diguten krisi ekonomiko honetan zentralitatea eta erreferentzialtasun handia eskuratu dute gure egunerokotasunean.

(34) Federazioek hartu duten protagonismoak zenbait unetan ez digu federazio eta sektoreen arteko orekari eusten lagundu. Une zehatz batzuetan federazioak pisua irabazten joan diren neurrian, sektoreak pisu eta erreferentzialtasun hori proportzio berean galtzen joan dira.

(35) Hauxe izango da datozen hilabete eta urteetarako gure helburutariko bat: marko bakoitzari bere espazio propioa eta bere protagonismoa topatzea, beraien artean osagarriak izan daitezten eta bata bestea zapaltzea ekidin dezagun.

### **Sektoreak**

(36) Federazioen sorreraren ondorioz, sektoreetako arduradunak Nazio Komite konfederaletik Federazioetako Komitean kokatuta egotera pasatzea izan zen beste berrikuntzetariko bat.

(37) Erabaki honek zalantza batzuk agertu zituen sektoreen paperaren inguruan. Egindako lanketa dela eta, batzuei iruditu zitzaion sektorializazioaren garapenean atzera pausua egin genuela.

(38) Gure helburua, ordea, oso bestelakoa zen. Egindakoak bi norabidetako erronka zuen. Alde batetik, zuzendaritza konfederalera gerturatu nahi genituen. Hartutako bideak ekintza sindikalari garrantzia handiago ematea zuen helburutzat. Eta bestetik, sektoreei tresna bat eman nahi genien beraien interbentzioa hobeto garatu ahal izateko. Federazioen bitartez lotura zuzenagoa izanda organu konfederalekin, sindikatuaren planteamendu konfederaletan gehiago integratzea zen xedea.

(39) Erabaki honek bestelako erabaki osagarri batzuk zituen; besteak beste lurraldeko egituraren papera eta protagonismoa areagotzea zenbait eztabaida konfederalen garapenean, sindikatuaren barne bitzita antolatzeke asmoz. Honek helburu argi bat zuen: aurreko fasean sindikatuan antzeman genuen eztabaiden bikoizketa ekiditea, hain zuzen ere.

(40) Gaur esan dezakegu bi apustu horiek ondo atera direla. Alde batetik, sektoreen dinamikak indartu ditugu, ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboko gure interbentzioan irabazi dugu. Egindako bidearen ondorioz, sektoreak sektoreago bilakatu ditugu. Beste aldetik, antzeman eta gainditu nahi genuen lurraldeko egitura eta egitura sektorialen artean hainbatetan suertatzen zen eztabaida bikoizketa ere gainditu dugu.

(41) Dena den, oraindik badira gauzak hobetzeko.

(42) Arduradun sektorialen eta sektoreetako nazio komiteen papera indartu behar dugu. Ardura eta egitura hauek gure egunerokotasunean paper garrantzitsuagoa jokatu behar dute

(43) Eskualdeetako sektoreen garapenari azken bultzada eman behar diogu, eskualdeetako idazkaritzen funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko.

(44) Sindikatuak garapen sektorial honetan zenbait aldagai kontuan hartu behar ditu. Lurreko egituraketari dagokionez eskualdeen arteko desberdintasunak kontuan hartu behar direla esaten dugun moduan, garapen sektorial honetan ere federazioei eta sektoreei gogoeta bera aplikatu behar zaie.

### **Nazio Komitea**

(45) Nazio Komiteak izan behar duen paperaren inguruan gogoeta ugari egin izan dugu eta beti ondorio berera ailegatu gara: zuzendaritza gune aitortua izanik ere, ez du zuzendaritza gune moduan funtzionatzen eta, beraz, gunea osatzen duten kideak ere ez dira zuzendaritzaren parte sentitzen.

(46) Orain arteko errealitatea hau izan bada ere, sindikatuaren zuzendaritza inguruan egin dugun hausnarketak balio behar digu zalantza hauek gainditzeko. Horretarako gako Nazio Komiteari zein funtzio jartzen dizkiogun argitzea da eta gogoeta horretatik ateratako ondorio nagusia da Nazio Komiteari sindikatuaren agenda sindikal zein politikoa ordenatzea dagokiola.

(47) Hau horrela izanik, Exekutiboak, sindikatuaren agenda sortzailea izango denak, Nazio Komitearekin lotura oso estua edukitzea bermatu behar dugu. Horretarako, bitarteko nagusia idazkari teknikoak burutu beharreko lana izango da, hau da, momentu oro exekutiboan tratatzen diren gaien berri Nazio Komiteko kideek ezagutzea. Era honetan, lehen mailako informazioaren jarraipena eginez, Nazio Komitean gai ezberdinen inguruan erabakiak hartu behar diren garaian, erabaki hauek hartzeko gaitasuna izaten lagungarria izan behar da. Beraz, bi guneen artean komunikazioa iraunkorki irekita egotea garrantzitsua da kide hauek edozein gairen aurrean ondo elikatuta egoteko.

(48) Honela, esan bezala, kide hauek gaien jarraipenen ezagutza asko irabaziko dute eta Nazio Komiteetan hartu beharreko erabakietan parte izango direlarik, errazago izango dute erabakiak martxan jartzeko ardura berenganatzea.

(49) Honekin batera, sindikatuko interbentzio ezberdinak ordenatzeari begira, eta azken batez gure funtzionamendua hobetzeari begira, sindikatuak garatu beharreko interbentziorako plangintza guztiak ezinbestez Nazio Komitean joratuak izango dira eta hemendik eskualdeetara bide emango zaie. Zentzu honetan, dinamika ezberdinen talka ekidingo dugu eta, ondorioz, eraginkortasunean irabazi. Kasu honetan ezin dugu ahaztu honek guztiak duen garrantzia eskualdeak izango baitira kokapen konfederala egiteko gunea, baita sindikatuko dinamika guztiak garatu beharreko abiapuntua ere.

### **Komite Exekutiboa**

(50) Komite Exekutiboaren osaketa sindikatuan ditugun erronken edo interbentzio lerroen arabera planteatu genuen 7. Biltzar Nagusian; honela, hiru zatitan banatu



genuela laburbilduenez gertatzen diren gertakariak: ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa (federazioen bitartez), politika ekonomiko eta sozialak (politika soziala, ekonomikoa eta enplegu politika) eta antolakuntza (antolaketa, hedapena eta idazkari ordea).

(51) Hiru lerro hauek batzorde banatan daukate jarraipena: ekintza sindikaleko batzordea, batzorde sozio-ekonomikoa eta antolakuntza batzordea.

(52) 7. Biltzar Nagusian burututako zenbait aldaketek lau urte hauetan zuzendaritza indartzen lagundu digute, hala nola federazioak eta hauen komiteak sortzeak edota antolakuntzari zegozkion funtzioak hainbat arduratan kokatzeak. Ponentzia honetan egiten ditugun zenbait proposamenek norabide honetan eragin nahi dute.

(53) Ekintza sindikalari dagokionez, azken zortzi urteotan hainbat urrats egin ditugu indartzeko bidean. Lehen sektorearteko idazkaritzak sortzea izan zen eta bigarrena, federazio idazkariekin batera, federazio komiteei bidea ematea.

(54) Ardura hauen bilakaerarekin batera gure eremuan historikoki zeuden bi ardura desagertu egin dira, ekintza sindikaleko arduraduna eta negoziazio kolektiboarena, hain zuzen.

(55) Azken lau urte hauetan interbentzio sektoriala indartu dugu, baina indartze hori ikuspegi orokorraren kaltetan izan da. Sektoreetan eta "mikroan" gure ekintza sindikalaren interbentzioan hobetu badugu ere, sindikatuaren diskurtso eta erreferentzia konfederalean galera izan dugu. Hau da, sindikatuaren gogoeta konfederalak ahulduz joan dira.

(56) Ahultze horrek oso azalpen erreza du. Federazioak indartuta, ez genuen sindikatuko ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboaren ikuspegi konfederala lantzeko ardurarik aurreikusi. Edonola, gabezia hau urte hauetan Komite Exekutiboan ardura desberdinen artean kudeatu da, era batean edo bestean.

(57) Azkenik, bizi dugun krisiak azken hilabeteetan politika ekonomiko eta sozialen birmoldaketa batera eraman gaitu.

(58) Krisiaren ondorioz botere ekonomikotik planteatzen diren murrizketa askok zuzen eragiten diote interbentzio esparru honi. Denok jabetzen gara erasoaren tamaina ez dela amaitu orain arte burutu dutenarekin. Etorkizun laburrean bestelako murrizketak ezartzea planteatzen hasiak dira honezkerok, eta honek gure interbentzio soziala indartzera eraman gaitu.

(59) Gogoeta hau borobiltzeko, 7. Biltzar Nagusian egindako egokitzapenez ziklo baterako gure zuzendaritza ereduaren oinarria finkatu dugula esan dezakegu. Orain bestelako esparru batzuk hobetzen eta sendotzen jarraitu nahi dugu: koordinazio eta interbentzio guneen unea ailegatu zaigu.

### Zeharlerroak

(60) LAB lan munduaren normalizazio dinamiketan aitzindaria eta erreferentea izan da eta bada.

(61) Lan munduan zein egungo jendartean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aldarrikatzetik horren aldeko dinamikak sustatzera eta bultzatzera pasa ginen. Era berean, gure hizkuntza nazionalak lan zentroetan, eta lan munduan oro har, pairatzen duen diskriminazioa salatu eta protagonismo handiagoa izan dezan dinamikak suspertzera pasa ginen.

(62) Urteetan zehar bi lerro hauetan lortutako tentsionamendu mailak eta jarduerak eraman gintuen pentsatzera Emakume eta Euskara Idazkaritzekin nahikoa izango zela egindako lanari segida emateko eta, hori dela eta, Zeharlerroko Idazkaritza desagertzea erabaki genuen.

(63) Lau urte hauetako ibilbidean izandako barruko zein kanpoko faktoreen ondorioz, argi ikusi dugu ez zela erabakirik hoberena izan. Izan ere, denbora honetan gai hauen inguruko gure interbentzioan intentsitatea nabarmen galdu dugu.

(64) Gogoeta honek ezinbestez gure erabakiak berraztertzea eraman gaitu. Bide horretan interbentzio lerro hauek indartzeko asmoz Zeharlerroko ardura berreskuratuko dugu.

### **Lan Osasuna**

(65) Duela lau urte, federazioen sorreraz gure interbentzio sindikalari integritasuna eman nahi izan genion bezala, Lan Osasun Idazkaritzaz egin genuen gogoeta eta apustua bide beretik zihoan.

(66) Honek idazkaritzatik betetzen diren funtzioak bereiztera eramaten gaitu: batetik, ekintza sindikalaren ondorioz behar ditugun bitarteko teknikoak, aholkularitza, alegia; bestetik, interbentzioari zuzendatutakoak.

(67) Gogoeta honen haritik dator duela lau urte abian jarri genuen planteamendua, hau da, lan osasuneko kide batzuk ekintza sindikala diseinatzen den guneetan kokatzea, sektoreetako nazio komiteetan, hain zuzen.

(68) Egindakoaz balorazio positiboa egiten dugu eta bide horretan sakontzera joan nahi dugu. Horretarako, idazkaritza, federazio eta sektoreen arteko lotura organizatiboa finkatu beharrean gaude.

### **Prestakuntza**

(69) Aurreko Biltzar Nagusian luze hitz egin genuen prestakuntzaz, formakuntzaren beharraz. Urte hauetan jauzi batzuk egin baditugu ere, oraindik sindikatuan ez dugu lortu prestakuntza plan integral bat diseinatzea.

(70) Prestakuntza plan horrek ezinbestez sindikatuko arlo desberdinetatik dauden eskaerak jaso, homogeneizatu eta ordenatu behar ditu.

(71) Sektore, eskualde zein idazkaritzetatik etengabe prestakuntza premiak planteatzen ari dira. Horiekin batera, sindikatuak behar konfederalak ere baditu, proposatzen ditugun ildoetan sakontzeko eta hauek zabaltzeko. Eta ezin dugu ahaztu militante orok bere ardura zuzenago garatu ahal izateko beharrezkoa den etengabeko prestakuntza.

(72) Baina prestakuntza arloa ezin da mugatu dauden eskaerei irteera edo erantzuna ematera. Prestakuntzak sindikatuaren beharrik aurreikusi behar ditu; hau da, eskaerari erantzuteaz gain, eskaintza ere diseinatu behar du.

(73) Eskaintza hori egin ahal izateko, prestakuntzak guk eragin nahi dugun esparruen segimendua eta ezagutza izateaz gain, sindikatuaren lehentasunak oso ondo barneratutak izan behar ditu.

### **Helduak eta pentsiodunak**

(74) 7. Biltzar Nagusitik beste erronka honi heldu genion sindikatuaren interbentzioa integral eta osatuagoa izan zedin.

(75) Hasiera bateko helburua xumea izan zen. Adina edo bestelako kontingentzien-gatik lan mundutik kanpo gelditzen zen militantziari antolatzeke gunea eskaini nahi



genion, gune horretan jendartearen zati inportante baten kezka eta arazoak konpartitzeko eta, honela, eremu honetan ere eragin ahal izateko.

(76) Arlo honen bitartez sindikatuak bere interbentzioari integritasuna eman nahi dio, mundu laboraletik kanpo gelditu den langileriaren zati handi batengana helduta.

(77) Lau urte hauetan egindakoaren balorazioa oso positiboa da. Antolatzeko eskaintza ez ezik, diskurtso propioa garatzeko eta dinamikak sustatzeko ere gai izan gara. Hasierako helburu xume horretatik, sindikatuak erreferentzia bihurtzea lortu du arlo honen ekimenaren bitartez.

### **Eskualdeak**

(78) 7. Biltzar Nagusian bereziki azpimarratu genuen eskualdeetako idazkaritzen eta eskualdeetako sektore-etako arduradunen papera. Egindako gogoeta berresten dugu, baina argi dago momentura arte lortu duguna oraindik urrun dagoela ezaugarritu genuen diseinutik.

(79) Honek ez gaitu eramaten ardua hauen papera birdefinitzera. Aurreko paragrafoan esan dugun moduan, duela lau urteko gogoetan berresten ari gara.

(80) Eskualdea ez da gaurko egunean guk nahiko genukeen lan taldea. Eskualdea, gure diseinuan ematen diogun papera bete ahal izateko, osaketan zein funtzionamenduan hobetu behar dugu.

(81) Osaketari dagokionez, sektoreen atalean esaten genuen moduan, eskualdeetako idazkaritzek oraindik zenbait eskualdeetako errealitateari ez diote erantzuten.

(82) Horretaz gain, eskualdeko idazkariaren papera batzuetan lotuago dago "suhiltzailearena" egiteari, komodin bat izanik, benetako eskualdeko arduradun politikoaren izaerari baino.

(83) Eskualdeak, sindikatua trinkotzeko eta interbentzioa gauzatzeko organo garrantzitsua izanik, ezinbestez ezagutu behar ditu sindikatuan maila konfederalean burutzen diren dinamikak (dinamika hauek bere eremuan eragina izan ala ez), eta bereziki bere eremu horretan isla izango dutenak.

(84) Horretaz gain, eskualdea militantziaren kokapen integralerako ezinbesteko tresna dugu. Konfederalki egiten ditugun hausnarketak eta garatu nahi ditugun ildoak batez ere gune honen bitartez militantziarekin konpartitu eta sakontzen baitira.

(85) Bileren dinamizazioan ere asko sakondu eta hobetu behar dugu.

(86) Lau urte hauetan ez dugu lortu eskualdeetako sektoreetako lan taldeak nahi genuen moduan garatea.

(87) Sail sindikaletako zein herri biltzarretako dinamizazioan ez dugu aurrerapausorik egin.

(88) Denok ikusten ari gara une honetan eskualdeetan gertatzen ari den pilaketa. Pilaketa hauxe bera da eragozten diguna teorian denok argi ikusten eta burutu nahi dugun praxia aurrera eramaten.

(89) Urteetan zehar gure hausnarketetan nabarmendu dugu egunerokotasunak jaten gaituela eta oraingo krisialdi ekonomikoak egoera hau areagotu egin du. Sindikatuak serio baloratu behar du eskualdeetan gertatzen ari den egoera. Ezin dugu Biltzar Nagusien arteko beste ziklo oso bat galdu eta hurrengo Biltzar Nagusian egoera honekin berriro topo egin.

(90) Koiuntura ekonomikoa ez da gure zain egongo eta neurriak hartzen ez baditugu trena galtzeko arriskua dugu. Gai honetan anbizioak izan behar gara, irabaztera joateko ordua ailegatu da.



(91) Jakitun gara ez dela neurri bakarra izango egoera honetatik aterako gaituena. Hainbat antolakuntza neurriekin batera, norberaren jarrera auzitan jarri beharko da egoera hau gaingitu nahi badugu.

(92) Gure eskualdeetako sektoreetako arduradunak beraien sektorearen garapenari eta inplementazioari begira jarri nahi baditugu gai hau hurrengo hilabeteetan sakon landu beharko dugu.

## 2.2. Gure ordezkariak zabalitzen

(93) Biltzar Nagusien arteko aldiak Ipar zein Hego Euskal Herrian sindikatuak bere ordezkariak finkatzeko prozesu ezberdinei egin die aurre.

(94) Ipar Euskal Herrian 2008ko abenduan Prud'hommetan lortutako emaitzak jauzi nabarmena izan ziren sindikatuaren bilakaeran. Honek, era berean, Ipar Euskal Herriko mapa sindikalean erabateko aldaketa ekarri zuen.

(95) Urteetan egindako lanak lehenengo aldiz eman zigun aukera sektore eta hauteskunde barruti guztietan aurkeztu ahal izateko. Eta barruti zein sektore hauetan guztietan lortutako emaitzek, esan bezala, sindikatuaren proiektua gaur egun proiektu kontsolidatua dela erakusten digute.

(96) Baina honetaz gain, lortutako emaitzek sindikatua beste ataka batean jarri dute. Hamar urte dira LAB Ipar Euskal Herria zabaldu zenetik eta heldu da unea gure proiektuak anbizio handiagoz jokatzeke eta Ipar Euskal Herriko egoera sozio-ekonomikoan eragiteko.

(97) Sindikatuak bestelako protagonismoa landu behar du konplexurik gabe, hamai-ka urtetako ibilbideak eta milaka langileren bozkek legitimitate nahikoa ematen digute pausu hori emateko.

(98) Erronka berri baten atarian gaude. Azken hilabeteetan denbora eskaini diogu gure oinarriak finkatzeari eta barruko lanketa eta gogoeta egiteari. Baina orain gogoeta hori Ipar Euskal Herriko jendartearekin konpartitzeko eta ildo berriak irekitzeko unea ailegatu da. Honetarako, gure antolakuntza eredu gaurkotu beharko dugu, gure egitura inplementatu nahi ditugun dinamiketara egokiturik.

(99) Beste alde batetik, Hego Euskal Herrian duela urtebete itxi dugun hauteskunde aldi trinkoan lortutako emaitzek gogoeta berezitua behar dute.

(100) Botere finantzieroak sortu duen krisialdi sakonean murgildurik eta inposatutako murrizketa zein neurri antisozialen artean, sindikatua 2008ko udazkenetik honen aurkako konfrontazio larri oso batean egon da buru belarri, bakarrik zein gehiengo sindikalean.

(101) Urte hauetan sindikatuak kapitalak eta administrazio desberdinen artean eraikitako proiektuari erabateko salaketa iraunkorra egiteaz gain, bestelako eredu eta kudeaketaren aldeko ildoak eraiki du. Honek espedienteen aukako dinamiketan, greben lanketetan edo negoziazio kolektiboan izandako jarreretan izan du bere islarik nabarmenena.

(102) Honela, 2010ko hauteskunde sindikaletako aldi trinkoari galdera ikur handi



## > P o n e n t z i a A

batekin ekin genion. Izan ere, prozesu honetan ikusiko zen sindikatuak bultzatutako lerro hori langileek ulertu eta berarekin bat egiten ote zuten.

(103) Hortaz, lortu ditugun emaitzak aurreko paragrafoetan margotu dugun testuinguruan aztertu behar dira. Dena aurka genuenean sindikatuak lortu dituen emaitzak oso onak izan dira eta izaten ari dira.

(104) Aldi berean, afiliazioan izaten ari garen bilakaera positiboa hauteskunde sindikalen inguruan egiten dugun balorazioa indartzera dator.

(105) Dena dela, bi esparru hauetan lan metodoetan oraindik zer hobetu badugu. Ezinbestez gure planifikazioan eta segimenduan hobera egin beharrean gaude.

(106) Egunerokotasunari oso lotuta dagoen hedapena egiten dugu. Planifikazioan jauziak eman behar ditugu: helburu orokorrak izateaz gain, helburu zehatzetara ere pasatu behar gara (sektorialak, hitzarmenen araberakoak, enpresetakoak, e.a.). Oraindanik eta hurrengo urteetan dinamika hori aldatzea izan behar dugu helburu.

(107) Hauteskunde sindikalak eta afiliazioa lan ildo iraunkorrak izatea lortu behar dugu, ekintza sindikalerako ditugun beharrei lotuta, hain zuzen. Ekintza sindikal eta negoziazio kolektiborako lehentasunak ezartzen ditugun bezala, esparru hauetan ere gure ordezkartza eta afiliazioa igotzeko plangintzak burutu behar dira.

(108) Planifikazio hauek gure interbentzioari erabat lotuak izan behar dira. Honek esan nahi du sektoreek bestelako protagonismoa izan behar dutela hedapenaren planifikazioak diseinatzerako garaian.

## 3. Hurrengo zikloaren apustua



### 3.1. Erakunde oso bat interbentzioari begira

(109) Ondoren planteatuko ditugun egokitzapenek erakundearen funtzionamendua hobetzea dute helburu, eta hauen bitartez Euskal Herrian zabaltzen ari den aro berri honetan sindikatuaren interbentzioa indartu nahi dugu.

(110) Bide horretan garrantzia handia ematen diogu datozen hilabete eta urteetan izango ditugun erronkak, sindikatua osatzen dugun guztion erronkak izateari.

(111) Aurreko Biltzar Nagusian esaten genuen borroka sektorial bakoitza estrategia orokor baten barruan kokatua dagoela eta, horren ondorioz, borroka horiek sindikatuaren osotasuna elikatzen dutela. Gogoeta honi jarraiki, gure funtzionamenduan beste jauzi bat egin nahi dugu: gure funtzionamenduaren bidez behetik gorako komunikazioari, gogoetari eta ekarpenari eman nahi diegu garrantzia.

(112) Honetarako, denbora eskaini nahi diegu eskualdeetan eta sektoreetan interbentzioa garatzeko dauzkaten beharrei eta lehentasunei. Eta, honela, interbentzio zuzenean dauden egituren hausnarketak eta beharrak sektore eta organo konfederalen gogoetan uztartu nahi ditugu. Honen helburua gure interbentzio konfederala integralagoa eta zuzenagoa izatea da.

(113) Hau lortzeko denon beharra dugu, baina eskualdeetako egiturek garrantzia berezia hartzen dute. Sail sindikalak, herri biltzarrak, eskualdeko idazkaritzak ezinbestekoak zaizkigu.

(114) Inplementatu nahi dugun behetik gorako dinamika honetan eskualdeari dago-kio elikatzea bai egitura sektorialak (sektoreko Nazio Komitea), bai egitura konfederalak (Nazio Komite konfederala).

(115) Erronka honetan bi ardurek oso paper garrantzitsua jokatu behar dute: eskualdeko sektoreko arduradunak eta eskualdeko idazkariak hain zuzen. Izan ere, bi ardurak hauek dira interbentzio zuzenean dauden egiturekin –eskualde eta eskualdeetako sektore taldearekin– lotura egiten dutenak: eskualdeko idazkariak Nazio Komite konfederalarekin eta eskualdeko sektore arduradunak sektoreko Nazio Komitearekin.

(116) Honekin batera, beste asmo bat betetzea bilatzen dugu: sindikatuaren dinamika guztiak ordenatzea eta, lehen esaten genuen modan, dinamika hauek ez daitezela izan bakarren batzuen helburuak (sektore, eskualde edota idazkaritzeak), denon helburuak baizik.

(117) Era berean, gure ekimenak ondo ordenatuz gero, hauen dispartsoa edota inflazioa mailakatu eta antolatuko genuke.

(118) Aurreko Biltzar Nagusian federazioak sortuta, jauzia egin genuen ordenatze honetan, federazioen bitartez ezagutu eta antolatzen baitugu sindikatuaren ekintza sindikal osoa.

(119) Orain, ordenatze hori erabatekoa izan dadin, eskualdeetako dinamiken jarraipenean findu behar dugu. Exekutibo eta eskualdeen artean komunikazio arina eta

etengabea izatea nahi dugu, horretarako antolakuntzan aritzen den ardura batek zeregin hau bere gain hartuko du.

### 3.2. Zuzendaritza organoen papera

(120) Edozein erakundetan zuzendaritza organoen beharra begi bistakoa da. Baina zuzendaritza organoak bezain beharrezkoak dira koordinazio eta interbentziarako organoak. Gurea bezalako erakunde batek bere inguruan eragin nahi badu, ezinbestez hiru organo edo egitura maila hauek beharrezkoak ditu, bere funtzionamendu osoa bermatu ahal izateko.

(121) Zuzendaritza egiteko era eta eredu asko egon daitezke. Eta era eta eredu hauek izaten dira neurri handi batean, beste aldagai batzuekin batera, erakunde bat ezaugarritu eta izaera bat edo bestea ematen diotenak.

(122) Zuzendaritzaren funtzio nagusietarikoa da, lidergoa markatzeaz gain, erakunde baten jarduerari koherentzia eta integritasuna ematea.

(123) Eztabaida horri gurean ekiteko orduan betidanik oso argi izan dugu gure eremuan zuzendaritza organo konfederalak organigraman dauden gainontzeko egiturekin alderatuta sekulako garrantzia eta pisua dutela.

(124) Hori esanda, argi dago gure zuzendaritza eremuan funtzionamendu egokia lortu ahal izateko ezinbestekoak direla gure egituraketan dauden beste organo batzuen ekarpenak. Ekarpene horiek gabe, ez genuke lortuko ikuspegi orokorrik gure interbentzioari ekiteko orduan.

(125) Honekin zera esan nahi dugu, denok, bakoitza bere egituratik, gure ekarpenen bidez zuzendaritza konfederala egin ahal izateko ezinbestekoak garela.

(126) Baina aldi berean honek ez du esan nahi denok zuzendaritza garenik.

(127) Gogoeta hau askotan nahasten da organoen autonomia zuzendaritza egiteko ahalmenarekin lotzen baldin bada. Eta, zer esanik ez, konfiantzaren argudioetara jotzen dugunean.

(128) Autonomiaren aferari lotuta, berriro ere harira ekarri nahi dugu duela lau urteko hausnarketa bat: "Borroka sektorial bakoitza estrategia orokor baten barruan dago kokatua, beraz osotasuna elikatzen du. Hemen ez gaude lehia batean non nork berea ahalik eta txukunen gauzatu behar duen, ondokoarena kontuan hartu gabe".

(129) Horregatik ezin dira hamaika erabaki gune egon, baina, aldi berean, zuzendaritza eredu honetan erabakiak hartu behar duen organo konfederalak, ildoaren definizioan eta inplementazioan egon behar direnen parte hartzea era batean edo bestean bermatu beharko du.

(130) Gerora, ildoak finkaturik, egitura bakoitzak ildo horien gauzapenerako bere erabaki propioak hartu beharko ditu. Baina kontziente izan behar gara erabaki horiek ildoan garapenari begira hartu behar direla eta ezin direla izan ildoan auzitan jartzeko.

(131) Hori dela eta, organo bakoitzak sindikatuaren osotasunean jokatzeko duen papera eta zertarako dagoen jakitea oso garrantzitsua da.

(132) Antolaketa honen helburua ez da hierarkizazio bat ezartzea, egituren funtzionamenduan eraginkortasuna bilatzea baizik.

(133) Hemen arazoa ez da zeinek hartzen dituen erabakiak, baizik eta nola betetzen dugun denok geure funtzioa erabaki horiek egoki hartzeko.

(134) Hausnarketa hau gure organigramara ekarria, horrela geldituko litzateke:

- Zuzendaritza: Biltzar Nagusia, Nazio Biltzarra, Nazio Komitea eta Exekutiboa.
- Zuzendaritzaren bitartekoak: federazioen komiteak eta batzordeak (Ekintza Sindikala, Sozio-ekonomikoa eta Antolakuntza).
- Koordinazioa: Nazio Komite sektorialak, eskualdeak.
- Interbentzioa: sail sindikalak eta herri biltzarrak.

### 3.3. Sektoreak indartu federazioen apustuan sakontzeko

(135) Hurrengo urteetan federazioen eta hauekin batera aritzen diren sektoreen papera eta protagonismoa handiagoa izango da gure erakundearen jardura finkatzerako orduan.

(136) Azken Biltzar Nagusian gauzatu genuen hartan sakondu nahi dugu eta, horretarako, hartuko ditugun erabakiak eredu bera indartzeari begira zuzenduta daude.

(137) Planteatzen dugun eredu honetan federazioek bi funtzio nagusi izango dituzte:

(138) Batetik, sindikatuak ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboari buruz egin beharreko gogoeta eta ildoen definizioan laguntzea. Horretarako, federazio arduradunak ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboko arduradunarekin batera arituko dira.

(139) Bestetik, interbentzio ildo konfederalak federazioan dauden sektoreen errealitateara egokitzea. Ariketa hau federazio komiteetan egingo da.

(140) Bigarren honetan federazioek paper bikoitza izango lukete: alde batetik, sektoreen jardura definitzeko analisiak eta proposamenak egin eta, bestetik, sektoreetatik egiten diren plangintzen gauzapenean laguntzea.

(141) Horretarako, Federazio Idazkariaren papera eta Federazioko Interbentzio Arduradunarena bereiztu behar ditugu. Bigarren ardura honen funtzioak plangintzen gauzapenari lotuago egon behar dira.

(142) Ponentziaren hasieran hainbat hausnarketa egiten genuen sektore eta federazioen inguruan. Egoera gaintzeko, arreta berezia eman nahi diogu federazio komiteetan dauden sektore arduradun nazionalen zeregin eta protagonismoari.

(143) Lehen arduradun hauek sektoreei begira zuten garrantzia berreskuratu nahi dugu. Hau da, ardura hauek organo konfederaletik planteatzen diren ildoen gauzapenean zuten protagonismoa berreskuratu nahi dugu.

(144) Horretarako, ardura hauen funtzioak sindikatu barrura zein kanpora begira indartu nahi ditugu.

(145) Gure organigraman sektoreek bi funtzio nagusi dituzte; alde batetik, eskualdeetan dauden interbentzio esparruen beharrak eta hausnarketak atzeman, jaso -ekintza sindikalean zein negoziazio kolektiboan- eta horiei ekiteko planteamenduak proposatu. Eta, bestetik, federazioen bitartez planteatuko diren ildo konfederalen garapena.



(146) Aurrerantzean, sektoreen plangintzek, ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboaz hitz egiten dugunean, erabateko zentralitatea hartu behar dute, edukien aldetik ez ezik, hauek gestionatzeko denboraren alde-tik ere. Plangintza hauek (konfederaletik datozenekin batera) finkatuko baituzte sindikatuaren interbentzioaren denborak eta erritmoak.

(147) Ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboari dagokienez, sektoreetako plangintzek erabateko zentralitatea hartzea nahi dugu.

(148) Plangintza hauen definizioa garrantzitsua bada ere, noiz egiten den ere bere garrantzia du. Sektoreek ez dute planifikazio nazionalaren zain egon behar beraiena diseinatzeko.

(149) Alderantziz, planifikazio konfederala egin ahal izateko sektoriala egina egon behar da.

(150) Honek lan metodoetan, erritmoetan zein denboran egokitzapen batzuk egitera eraman behar gaitu. Garrantzia eman behar diogu ebaluaketari eta, honekin batera, ildoaren egokitzapenari edo luzapenari ekin behar diogu.

(151) Hau guztia une berean egin behar da, ezin da askotan egiten dugun moduan denboran momentu desberdinetan kokatu. Gerora, ildoaren garapena dinamikoa izan beharko da eta, horretarako, behin baino gehiagotan errebisatu eta egokitu beharko dugu.

(152) Gogoeta hau aurrera eramateko ardura Sektoreetako Nazio Komiteei dagokie, beraiek finkatuko baitute beren sektoreari dagokion interbentzioa.

### **3.4. Eskualdeak gure interbentzioaren oinarria**

(153) Gure eredu sindikalean, egitura honek gure interbentzioaren garapenean jada pisu eta zentralitate handia badu ere, bultzatu nahi dugun prozeduran garrantzia hori areagotuko da.

(154) Atal honen hasierako gogoetan esan dugu behetik gorako komunikazioari berebiziko garrantzia eman nahi diogula. Hori gauzatu ahal izateko, aipatzen ari garen bi egiturek (eskualdeak zein sektoreak) ezinbesteko papera jokatu behar dute.

(155) Horretarako, eskualdean dauden ardura ia guztiek bi norabidetako funtzioa dute: batetik, interbentzio esparruetan suertatzen diren egoerak atzeman eta zuzendaritza egituretara eramatea; eta bestetik, sindikatuak planteatzen dituen interbentzio ildoak interbentzio esparruetan gauzatzea. Bi funtzio hauek oso garrantzitsuak dira guk nahi dugun funtzionamendua lortu ahal izateko.

(156) Lehenengoaren bitartez sindikatuaren egiturak (sektorialak zein konfederala), elikatzen ditu.

(157) Ezinbestez, sindikatuaren interbentzioa diseinatzerako garaian, gogoeta konfederalekin batera, enpre-setan eta herrietako egoerak bere tokia izan behar du. Honela, sektoreei zein Nazio Komite konfederalari, hau da, sindikatuaren ildoak definitu eta erabaki behar dituzten egiturei, ikuspuntu eta ekarpen berriak egin behar dizkie.

(158) Lanketa integral hau eraginkorra izateko eskualdearen osaketari ere erreparatu behar diogu.

(159) Denok ados gaude eskualdea dela gure jarduera aurrera ateratzeko gune nagusia. Hori dela eta, eskualdeak uneoro sindikatuak dituen erronkak eta interbentzioak ezagutu behar ditu kokatu ahal izateko.

(160) Argazki hori Nazio Komitean landu ditugun ildo orokorren bitartez elikatuko da. Baina ildo horiek orokorrak izanik, ondoren sektoreetan osatu behar dira eta horretarako zehaztasunak eskualdean eskualdeko sektoreetako arduradunen bitartez jaso behar dira.

(161) Honekin esan nahi duguna da eskualdean sektore edo federazio guztien presentzia (eskualdearen errealitatearen arabera, noski) oso garrantzitsua dela; bestela, eskualdeetan ildo orokor horiek hankamotz geratuko dira martxan ipintzen direnean.

(162) Egoera hauek dinamikoak izanik, urteak daramatzagu gai hau azpimarratzen. Egun, eskualde batzuetan ehundura ekonomikoan dauden hainbat sektorek ez daukate isla organizatiborik, hau da, sektoreen presentzia ez da erabat osatu gure eskualdeetan, nahiz eta ahaleginak eta aurrerapausu batzuk eginak izan. Datozen hilabete eta urteetarako gai hau erronka organizatiboa izango da.

(163) Hala ere, esan beharra dago presentzia, gure iritziz, ez dela bermatzen eskualde idazkaritzaren bileretara joanda, presentzia eskualdeko dinamiketan integratuta egonik bermatzen da. Hauxe da gure erronketariko bat.

(164) Erronka honek, bizi dugun krisi eta murrizketen abagune honetan, berebiziko garrantzia dauka arlo publikoan zabaltzen ari den konfrontazioa gure egunerokotasunean integratzeko.

(165) Egun zerbitzu publikoen murrizketak ezin dira borrokatu langileen ikuspegitik besterik ez. Eraiki nahi dugun jendarte eremuan sektore publikoak paper garrantzitsua jokatzeko du eta egun bizi den egoera eta etorriko dena borroka sektorial izateko borroka konfederala izatera pasa behar da.

(166) Sektore publikoaren defentsan langileak aktibatzeaz gain, herritarrak ere aktibatu behar ditugu eta horretan sindikatu osoak baina bereziki eskualdeak paper inportantea du. Horregatik, sektore publikotik jauzi organizatiboa egin behar da eskualdeetako egituretan integratzeko.

(167) Eskualde egitura barruan, lehen aipatu dugun moduan, eskualdeetako sektore arduradunak eta eskualdeetako idazkariak pieza klabeak dira gure organigraman, bi ardura hauek sindikatuaren interbentzioa finkatzeko eta garatzeko zati garrantzitsu bat irekitzen eta ixten baitute.

#### ESKUALDEKO SEKTORE ARDURADUNA

(168) Ekintza sindikalari eta negozioz kolektiboari dagokienez, eskualdeko sektore arduraduna bisagra da, bere eskualdean berari dagokion sektorearen argazkia uneoro ezagutu behar duelako eta bere eskualdeari zein sektoreko Nazio Komiteari jakinarazi behar dielako.

(169) Sektoreko Nazio Komiteak bere interbentzio ildoak zeintzuk izango diren eta noiz landu beharko diren zehazteko garaian, eskualdeetatik zein federaziotik jasotzen dituen ekarpenak kontuan hartu beharko ditu.

(170) Definitutako ildoak federazioarekin konpartitu eta osatu beharko dira.

(171) Federazioak ildo hauek Exekutibo eta Nazio Komite konfederalari jakinaraziko dizkie eta azken honek, sindikatuaren argazki osoa daukala, interbentzio ildo konfederalak zeintzuk diren erabakiko du eta, lehentasunak markaturik, ze unetan aplikatuko diren ezarriko du.



(172) Amaitzeko, erabaki horiek eskualdeetan gauzatuko dira, horrela, zirkulua itxiko da.

(173) Ponentzia hasieran egin dugun hausnarketarekin bat dator proposamen oso hau:

(174) Alde batetik, sindikatuaren erronkak denonak izatea, denok era batean edo bestean parte hartzen dugulako ildo horien definizioan zein martxan jartzeko erabakian eta, noski, bukaeran ematen den interbentzioan.

(175) Beste alde batetik, sindikatuaren interbentzioa ordenatzea. Honetarako, sindikatuaren dinamika guztiek gune berdinetik igaro behar dute, Nazio Komite konfederaletik hain zuzen.

### ESKUALDE IDAZKARIA

(176) Eskualdeko arduradunaren papera neurri batean oso antzekoa da, baina bere ekarpena sektoreei eta federazioei egin ordez, Exekutiboari eta Nazio Komite konfederalari zuzenduta dago.

(177) Hala ere, hori ez da eskualdeko arduradunaren funtzio bakarra.

(178) Eskualdeko arduraduna ez da koordinadore hutsa. Nazio Komite konfederalarekiko jokatu behar duen paperaz gain, eskualdea trinkotzeko pieza klabea da.

(179) Eskualdeko arduradunak eskualdeko idazkaritzari ikuspegi konfederala aportatu behar dio. Konfederaletik datozen planteamenduak eskualdeko errealitatera egokitu eta martxan ipini behar ditu. Era berean, sektoreekin batera dinamika konfederal eta sektorialen planifikazio eta segimendua egin behar du.

(180) Horregatik eskualdeko arduradunaren funtzioa, eskualdeari dagokionez, gehiago da trinkotze lana egitea zuzendaritzakoa baino. Edozelan, eskualdearen dinamizazioa eta funtzionamendu egokia ez dagokio eskualdeko arduradunari soilik. Askotan esan dugu, eskualdea lan taldea da.

(181) Eskualdea ezin da izan ardura desberdinen gehiketa huts bat. Egia da eskualdean dagoen organigraman ardura bakoitzak bere funtzio zehatzak dituela, baina eskualdean gertatzen dena, era batean edo bestean, denon ardura da.

(182) Eskualdearen garrantzia bere ikuspegi integralean datza.

(183) Hemen lehia ez da sindikatuaren organigraman zeinek duen garrantzia edo pisu handiagoa, sektoreek edo eskualdeek, edo zeinek egiten duen hobeto edo okerrago. Bakoitzak bere funtzioak eta paper desberdinak ditu eta hauek gure funtzionamendurako osagarriak dira, elkarri elikatu behar diote.

(184) Eskualdearen funtzionamenduak Nazio Komite konfederalarekin duen menpekotasuna gainditu behar du. Honek ez du esan nahi erabat autonomia izango denik, baina bai bere funtzionamenduan bereiztu behar direla gestiorako uneak eta zuzendaritza elikatzeko uneak.

(185) Gogoeta honekin gehienok ados egonik, epe laburrean jauziak egin behar ditugu martxan ipintzeko.

(186) Egia da zenbait unetan eskualdea Nazio Komite konfederalaren "zai" egon beharko dela, baina hori metodologia egokiago batez konpondu edo zuzendu daiteke.

(187) Horregatik behin eta berriro errepikatzen dugu eskualdeko egiturak gure eremuan sekulako garrantzia duela. Ildoen gauzapenean determinantea izanik, ildo horien diseinuan ere parte hartu behar duelako.

(188) Hau da, erraz azalduta, gure helburuetariko bat.



(189) Planteamendu honek ezinbestez bestelako funtzionamendua eskatuko du, eskualdetatik hasita Nazio Komite konfederaleraino.

(190) Funtzionamendu aldaketa hauek ez dute antolaketan islarik izango, baizik eta gure organigraman dauden egitura desberdinetako kideen jarrera eta protagonismoan burutu behar dira.

(191) Lehen esaten genuena gogora ekarri nahi dugu berriz ere: denok izan behar gara, era batean edo bestean, ildoaren definizioaren eta inplementazioaren parte.

### LAN MUNDUAREN EGITURAKETAREN ERALDAKETA

(192) Azken hamarkadetan Euskal Herriko enpresaren izaera eta egituraketa asko aldatu da. Urte askotan Euskal Herriko ehundura produktiboa batez ere industrialak izan da, baina azken sasoiaren zerbitzu arloak pisua eta garrantzia irabazi izan du.

(193) Honekin batera, enpresen izaera eta hauek antolatzeko ereduak asko aldatu dira.

(194) Duela gutxira arte enpresa eta lan zentroa gauza bera zen, baina krisi desberdinek, birmoldaketek eta azken urte hauetan lan munduan pairatu dugun globalizazioak bere eragina izan du. Enpresa lan zentro bakarrekoa izatetik multinazionalen sarrerarekin partzuergo handietako beste lan zentro bat izatera pasa da. Enpresen bategiteak eguneroko kontuak dira, herrialdeko izaera duten enpresak arruntak dira.

(195) Baina argazki hori ez da estatikoa, oso dinamikoa baizik, egunero birmoldatzen ari da, oso egoera dinamiko baten aurrean aurkitzen gara. Horregatik, honen aurrean sindikatuak ere jakin behar du egokitzen eta bere funtzionamenduan sortzen diren egoeretara moldatzen.

(196) Honek ez du esan nahi egun dugun eredu (lurraldea eta sektorea) aldatzera goazenik, baina bai eredu horretan malguak izan behar garela eta egun jasotzen ez ditugun koordinazio guneak (herrialdekoak, intersektorialak, e.a.) aurreikusi eta artikulatu beharko ditugula, helburu argi batez: lan mundutik sortzen diren errealitateei egokiago erantzun ahal izateko.

### 3.5. Sail sindikalak

(197) Betidanik esan dugu sail sindikalak direla gure interbentziorako gune nagusietariko bat.

(198) Baina bizi dugun krisi ekonomiko honetan sail sindikalek inoiz baino pisu eta zentralitate gehiago hartu dute eta izango dute.

(199) Sindikatuan sail sindikalez hitz egiten dugunean askori metalgintzako eredu datorkigu burura, hau da, herrian, eskualdean, kokatua dagoen lan zentroko sail sindikala.

(200) Lan merkatuak garatuz doaz, azken Biltzarretan luze hitz egin dugu horretaz. Garapen horrek enpresa eta lan zentroa ulertzeko modu berria ekarri du eta sail sindikalak eta beren funtzionamendua ezinbestez eredu horietara egokitu beharra dugu.



(201) Zentro berean askotan enpresa bat baino gehiagoko langileak aritzen dira (azpikontratak, zerbitzuen kanporaketak, e.a.): Hau klase subjektuaren zatiketaren beste adibide bat daukagu.

(202) Tamalez, sistemak inposatzen digun eredu horretan guk geuk barneratzen dugu enpresa berean lan egiten duten langileen arteko bereizketa. Honela, lan zentro berean arazo berberekin dauden langileei irtenbide organizatibo ezberdinak ematen dizkiegu.

(203) Egoera hori gainditu beharra dago. Zerbitzuaren errebertsioa eskatzen dugu, adibidez, baina bitartean, langile horien artean ez dugu ezer eraikitzen, bi mundo paralelotan kokatzen ditugu.

(204) Horregatik gure funtzionamendua egokitu beharra dugu, malguak izanik. Azken batez, helburua ez da antolaketa egitea, helburua da gure ekintza sindikala, gure interbentzioa garatu ahal izateko tresna eraginkorrek edukitzea.

(205) Horretarako, gure sail sindikalaren eredu lan merkatuan dauden enpresen errealitatera egokitu behar dugu: lan zentro bakarrekoa, zentro anitzetako, herrialdekoa, e.a.

(206) Egun kapitalak eta botere finantzieroak, botere politikoaren laguntzaz, inposatzen diguten lan harremanen desarautze honen aurrean interbentzio organo desberdinen, baina bereziki, sail sindikalen koherentzia eta sindikatuarekiko atxikimendua oinarritzakoa eta beharrezkoa da bere interbentzioa egiteko orduan.

(207) Kapitalak desarautze honekin bilatzen duen lan harremanetarako indibidualizazioaren aurrean izaera kolektiboa mantentzeak sekulako garrantzia du. Eta horretan sail sindikalek paper garrantzitsua jokatzen dute.

(208) Une hauetan sail sindikalekiko lanketa ideologiko eta sindikatuaren helburuak konpartitzea ezinbesteko ariketa bilakatu zaigu, hori baita modu bakarra sindikatuaren diskurtsoa eta praxiaren arteko erabateko koherentzia bermatzeko.

(209) Izan ere, sail sindikaletako interbentzioan sindikatuaren teoria praxi bilakatzen da. Beraz, sail sindikaletako interbentzioak batera edo bestera egiteak sekulako garrantzia du honek sindikatuaren diskurtsoa errealitate bihurtzen duelako, ala ez.

(210) Sail sindikalen funtzionamendu eta interbentzio egokia sindikatuaren hausnarketa eta planteamenduak langileei zuzen eta eraginkor helarazteko bide bakarra da.

(211) Baina sail sindikalak ondo funtzionatzeko, sindikatuko hainbat estamentu inplikatu behar dira. Konfederalak, federazioak, sektoreak eta eskualdeak paper garrantzitsu bezain determinantea jokatzen dute sail sindikalen dinamizazioan.

(212) Esparru hauen funtzioetako bat sail sindikaletarako elikadura sortzea da. Gero, egia da azken unean eskualdean dauden ardurei (sektorialari bereziki) dagokiela hauen dinamizazioa.

(213) Aro honetan garrantzi handia, erabateko zentralitatea, hartu behar du gure jendeari elikadura ideologikoa emateak.

(214) Kapitalak behin eta berriro burutu nahi dituen aldaketak eta murrizketak justifikatzeko erabiltzen duen diskurtsoari aurre egiteko etengabe tresna eta argudio ideologikoz elikatu behar ditugu gure militante eta ordezkariak, gure jarduera sindikala aurrera eramanez.

(215) Azken gogoeta hau gure ordezkari guztientzat, delegatu zein afiliatuentzat, baliagarria baldin bada, sail sindikalen kasuan garrantzi handiagoa hartzen du. Sektoreek zein eskualdeek komunikazio zuzena eta iraunkorra izan behar dute euren esparruetan dauden sail sindikalekin.

(216) Aurrerantzean sektoreetako, baina bereziki eskualdeetako plangintzetan lehen-tasuna eman behar diogu gune hauen sorrera eta garapenari. Oso serio hartu behar dugun kontua da hau.

(217) Lan horretan planifikazio zehatza eta honen segimendua ezinbesteko tresna da. Eta lanketa honetan, aurreko paragrafoan esan dugun moduan, eskualdeak paper ordezkazina du.

(218) Gogoeta hau ezin dugu amaitu sail sindikaleko delegatuek izan behar duten paperari erreparatu gabe.

(219) Ardura hau klabea da sail sindikalaren funtzionamendua egokia izan dadin, bera delako sail sindikalaren eta sektore zein eskualdearen arteko lotura zuzena eta, hone-taz gain, enpresa horretan sindikatuak duen ordezkartzaren arduraduna eta dinami-zatzailea.

(220) Kasu askotan figura honi ez diogu behar besteko arreta eskaini. Maiz ikusten dugu ardura honek jokutzen duen papera lotuago dagoela enpresa komitean egin beharreko dinamikari, sindikatuaren ildoan inplementazioari baino, nahiz eta komite-an egin beharreko lana ildoan jarraipena izan behar den.

(221) Disfuntzio hau gainditu behar dugu. Sail sindikalak eta bere arduradunak komi-tearen jarduera ezinbestez aztertu eta proposamenak egin behar ditu. Hori inork ez du zalantzan jartzen. Hala ere, sail sindikalaren funtzioak haratago doaz. Lehen esan dugun moduan, sail sindikala da enpresa, lan zentroa, eta sindikatuaren arteko lotu-ra gunea. Beraz, komiteetan dauden dinamiketaz gain, sindikatuak propio planteatzen dituen eta garatu beharreko ildoak kontuan izan behar ditu, lan zentroan edo enpresan garatu ditzan.

### **3.6. Herri Biltzarrak**

(222) Biltzar honetan 2008ko udazkenetik pairatzen dugun krisiaren ondorioak (lan munduan zein jendaratean), askotan aipatu ditugu. Ondorio horietako bat erantzun ereduari datza: sindikalismotik emandako erantzunari maila sozialean aktibatu dire-nak gehitu behar dizkiogu.

(223) 2009. urtetik hona bi dinamika hauen uztarketa bilatzen ari gara, bakoitzak bere esparru propioa izanik, biak osagarriak baitira.

(224) Osagarritasun hori gehienbat bi esparrutan suertatzen da: maila nazionalean, izaera nazionala duten dinamiketan behin eta berriro mobilizazio soziala txertatzen saiatu gara; eta eskualde mailan.

(225) Eskualde mailako ekimenek izaera sozial handiagoa hartzen dute eta, hortaz, honelakoak berezkoenak edo naturalenak direla esan genezake. Izan ere, borroka sindikala eta soziala bateratzen diren gune naturala herria da. Eta horregatik eskual-deak paper aktiboa izan behar du bere esparruan sortzen diren ekimen ezberdinetan integratzeko eta bultzatzailea izateko.

(226) Une hauetan hau garrantzi handia hartzen ari da. Izan ere, urteetako konfronta-zioaren ondorioz lortutako eskubide sozialen aurka ari dira gobernu ezberdinak, eta erasoak, zuzenak zein zeharkakoak, etengabeak izaten ari dira.



(227) Zuzen, erreforma eta murrizketen bidez, jendarte osoaren kontrako neurri erregresiboak inposatzen ari direlako. Zeharka, sektore publikoko langileei ezarritako neurriek, langile hauei ez ezik, jendarte osoari ere eragiten diotelako.

(228) Hori dela eta, erantzun eta borroka sindikal eta soziala uztartzeak berebiziko garrantzia du. Eta hone-tan, eskualdearekin batera, herri biltzarrak ere paper inportantea jokatu behar du.

(229) Betidanik, bi egitura hauen funtzioaz hitz egin dugunean, herrietako gure interbentzio sozio-ekonomi-koari begira kokatu ditugu, paper osagarriz eta elkar elikatuz. Bakoitzak bere papera izanda ere, lehenago edo beranduago bi gune hauek gurutzatzen dira.

(230) Herri Biltzarrak gure interbentzio sozio-ekonomikoa garatzeko dugun egitura izanik, argi dago fase honetan garrantzia handiagoa duela, herri mailan gure sustatzaile nagusia baita.

(231) Laburbilduz, herrietan eragiteko, eskualdeak eta herri biltzarrak protagonismo handia dute; hauek gabe, sindikatuaren interbentzioa enpresara, hau da, lan mundura mugatuko litzatekeelako eta arlo soziala diskurtso mailan baino ez genukeelako jorratuko.

(232) Beraz, oso garrantzitsua da gure militanteek herrietan, eragile sozialekin izan beharreko hartu emana. Hori delako modu bakarra diskurtsoetik praktikara pasatzeko.

### **3.7. Planifikazioaren beharra**

(233) Ponentziaren hausnarketan behin baino gehiagotan planifikazioaren beharra azpimarratu dugu.

(234) Lana planifikaturik izanda, honek egoerak identifikatzea bermatzen digu; identifikazio horretatik, hel-buruak finkatzen ditugu, eta azken hauek gauzatzeko behar ditugun bitartekoetatik (pertsonalak, teknikoak) eta denboraz jabetzen gara eta honek heburu horiek martxan ipintzen laguntzen digu.

(235) Honaino denok ados egoten gara. Arazoa sortzen da eguneroko jarduera barruan planifikaturik ez dau-den elementuak gurutzatzen direnean, batez ere elementu horiek erabateko protagonismo eta pisua har-tzen dutenean.

(236) Horrelakoetan gure lehentasunak zeharo aldatzen dira: planifikatutako lana bigarren edo hirugarren mailan gelditzen da eta dinamika asistentzialek zentralitate osoa hartzen dute.

(237) Egoera honek eskualde batzuetan dagoen itomen sentsazioa areagotzeaz gain, militanteen frustrazioa ere sorrarazten du, berandu eta gaizki ailegatzen garen sentsazioa eraginda.

(238) Gurutzatze horiek gurean beti suertatuko dira, hori ezin dugu ekidin. Gurutzatze horiek, arinago edo larriagoak izanik, dugun aukera bakarra da gure jardueran ahalik eta ondoen integratzea, ze espazio eta garrantzia eskaini behar diegun finkatuz gure helburu estrategikoen inplementaziorako ahalik eta eragin gutxien izan dezaten.

(239) Ezinbestez, sindikatuan egoera horiekin batera bizitzen ikasi behar dugu. Baina gure lehentasuna lan planifikatuari eman nahi badiogu, gune edo ardua berean planifikatu gabeko egoeren eragina murriztera jo behar dugu.

(240) Beste alde batetik, duela lau urte zenbait gunetan informazioa eta eztabaidak egiteko orduan suerta-tzen zen bikoizketa gainditu dugu, lurralde eta sektore egiturek papera hobeto fintzeari esker.

(241) Dena den, oraindik asko hobetu behar dugu bileren eta guneen dinamizazioan. Azken hilabeteetan

bitarteko berriez (barne boletinak, afiliazioaren posta zerrenda, e.a.) egiten ari garen lanketa bide egokian kokatzen dugu.

(242) Militantziak bere arduraren garapenerako behar duen informazioa eta ekarpenak zaindu eta zuzen jasotzea nahi dugu. Honekin gune bakoitzaren dinamizazioan lagundu nahi dugu: ildoak alde zuzenetik ezagunak izanik, egitura bakoitzak hauen inplementazioari denbora gehiago eskaini ahal izango dio eta eraginkortasunean irabaziko du.

(243) Ariketa honetan sindikatuaren organigraman egitura bakoitzak duen papera eta protagonismoa argi izatea ere ezinbestekoa da.

(244) Gure kultura militantean betidanik jendeak parte hartzea bultzatu dugu, baina askotan nahasten gara: denbora luzea galtzen dugu jada definituak edo hartuak ditugun lerroen inguruko gogoetetan, eztabaida horiek kasu batzuetan antzuak izanik. Egoera horiek ekidin nahi ditugu.

(245) Hemen ur arriskutsuetan sar gaitzke, batzuek pentsa dezaketelako planteamendu honen atzean "rodillo analítico" delakoa pasatzeko asmoa ezkututzen dela. Arrisku hori beti egon daiteke, ezin da ukatu.

(246) Baina gogoeta hau beste ikuspuntu batetik egiten dugu. Askotan eztabaida zirkularretan sartzen gara. Eztabaida berriak erabiltzen dira erabaki zaharrak zalantzan jartzeko (sindikatuaren ildo osoa kuestionatzen). Beste batzuetan eztabaida amaigabeak egiten ditugu inolako ondorioz ailegatu gabe. Beste batzuetan erabakien transmisio okerrak edo azalekoak -bost minutuko lanketa bat eskatzen duenak- orduetako eztabaida bilakatzen du.

(247) Honetaz hitz egin nahi dugu, egoera horiek ahal den neurrian ekidin nahi ditugu, barne egoera horiek ere gure jarduerarako ez direlako lagungarriak.

(248) Horregatik oso argi izan behar dugu uneoro eztabaida batzuetarako non, nola eta zeinek. Eztabaida bakoitzean identifikatu behar dugu erabakia ze egiturak hartzen duen eta zeintzuek hartu behar duten parte eztabaida horretan; erabaki hori ze guneren bidez konpartituko dugun militantziarekin eta zeinek gauzatu behar duen.

### **3.8. Militantziaren protagonismoa ziklo berrian**

(249) Gure antolakuntza eredu aurrera eramateko militantziak erabateko zentralitate eta garrantzia du. Egun sindikatua den modukoa da, urteetan zehar militante askoren ekarpenari eta esfortzuari esker. Hori da gure altxorra, zaindu eta iraunkorki elikatu eta ureztatu beharreko baratza.

(250) Batzuek militantziaz hitz egitea aurreko mendeko nostalgikoen gogoeta hutsalak direla esaten duten honetan, sindikatuan azken lau urte hauetan egindako belau-naldi aldaketak horrela ez dela argi utzi digu.

(251) Militantziaren kontzeptuak eta ulertzeko erak aldatu badira ere, militantzia egon badago. Sindikatua ulertzeko eta bizitzeko eredu berri hauetara egokitzen ari da eta hau, aurrerantzean, prozesu dinamikoa izango da.

(252) Hasi den ziklo honek ez digu militantziari erlaxatzeko aukerarik emango, kon-



trakoa baizik. Klase zein nazio gatazkak sartzen diren fase honek ezinbesteko konfrontazio estadia ekarriko digute eta honetan militantziak eta militanteok jokatu beharko dugun papera funtsezkoa izango da.

(253) Botere ekonomiko-finantzieroak botere politikoaren laguntzaz bultzatzen duen jendarte eredu indibidualizatu honek bestelako proiektu bat defendatzen dugun eragileen ezabatze eta deslejitimazio iraunkorra dakar berarekin batera.

(254) Inposatu nahi diguten diskurtso eta errealitate monolitiko eta planoen aurrean, eraikitzen duten alternatibarik gabeko eszenatoki horien aurrean, guk bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat eraikitzeko aukerak egon badagoela aldarrikatzen dugu.

(255) Hala ere, elite hauek erabiltzen dituzten bitartekoekin (prentsa, botere ekonomiko eta instituzionala, e.a.), lehiatzea oso zaila dugu. Beraz, gatazka amaigabe honetan gure tresnarik baliotsuena militantzia bera da eta egunegun militantzia honen bitartez hainbat esparrutan eragiten eta alternatiba errealak eraikitzen ditugula erakustea.

(256) Horretan gaude eta horretan jarraituko dugu.

(257) Baina militantzia ez da berez suertatzen den jarrera bat; militantzia bilatu, sortu, eraiki egin behar da. Eta horretan sindikatuak inbertsioak egin beharko ditu.

(258) Gogoeta zabal eta orokor honi amaiera emateko, ezinbestez aurreko guztia bideragarria egiten duten gure militanteez eta sindikatuaren funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko daukaten paperaz hitz egin behar dugu.

(259) Aurreko Biltzarrean guneekiko atxikimendu ezaz hitz egin genuen eta, zoritxarrez, egoerak bere horretan dirau.

(260) Erakunde guztietako egiturek, guneek, betetzen dituzten funtzio desberdinen artean bat azpimarratu nahi dugu: erakundea osatzen dugunon interbentzioak, indibidual zein kolektiboki, osotasun baten barruan zentzua izatea du helburu.

(261) Sekulako garrantzia ematen diogu organigrama oso bat izateari. Ponentziaren organigrama horretan denok geure ardura, geure gunea bilatzen dugu. Organigraman denok agertu behar gara, bestela, bertan ez bagaude, ez garela existitzen dirudi, hau da, organigraman ez egoteagatik ez garela inor.

(262) Kezka hori ez da txarra, baina haratago eraman behar da.

(263) Organigrama baten oinarria ez datza egituren diseinuan, baizik eta egitura horietan parte hartu behar duten kideengan. Kiderik gabe erakunderik ez dagoen bezala, egiturek kideen parte hartzerik gabe ezin dute funtzionatu.

(264) Baina, aldi berean, militanteak gunerik gabe hanka motz, umezurtz geratzen gara. Azken finean, erakunde bat norabide berean ekarpen eta interbentzioa egiten dugun militante askoren gehiketa da.

(265) Militanteen interbentzioa bi norabidetakoa da: barrurakoa, erakunde eta gainontzeko militanteekiko, eta kanpokoa, eragin nahi dugun jendartearekiko. Ez dago bata bestearen gainetik. Erakundearen funtzionamendu egokirako biak beharrezkoak dira eta, beraz, biak uztartu behar dira. Hori da militanteen lehendabiziko zeregina.

(266) Tamalez, gurean kasu askotan bigarrena lehenesten dugu lehenengoaren aurretik.

(267) Egoera hau gainditzeko, aldatzeko, ez da bitarteko gehiago edo gutxiagoren eztabaida egin behar, jarreraren eztabaida baizik. Horretarako, gogoeta kolektiboak bere garrantzia badu, baina norberarena determinantea da.

### 3.9. Idazkaritzen garrantzia

(268) Bizi dugun koiuntura ekonomikoak eragin handia izan du idazkarizetatik bultzatu nahi ditugun ekimenetan.

(269) Krisia dela eta, enpresa askotan lehentasunak aldatu dira: "merkatuen errealitatera" egokitu dira, helburua enpresaren beraren bizi iraupenera mugaturik. Egoera honetan hizkuntza normalkuntza eta berdintasun planak enpresa askoren lehentasunetatik erori dira, hala nola lan osasunari eta ingurumenari dagozkienak.

(270) Arazoa, ordea, ez da soilik enpresen lehentasunetatik erori direla, baizik eta langile askoren planteamentuetatik ere desagertu direla.

(271) Krisiaren eragina pairatu baino lehen dinamika hauek sarbidea lortzen ari ziren lan munduan, kostata, baina denon bultzadaz aurrerapausoak egiten ari ginen. Orain, dinamika hauek agendatik kanpo gelditu dira eta bakar batzuen arazoa dela dirudi.

(272) Errealitate ekonomikoaren aurrean ezin dugu ezikusiarena egin. Hala ere, honek ez du esan nahi gauzak bere horretan utzi behar ditugunik. Urteetan egindako lana, langileen kontzientziazioa, planak martxan jartzea eta segida ematea, ezin da hilabete batzuetan desagertu.

(273) Orain daukagun erronka eraikitakoa koiuntura honetan mantentzea eta aurrera segi araztea da.

(274) Argi dago idazkarizetatik eta federazioetatik enpresetako egungo errealitatera egokitu beharko garela, hau da, gure interbentzioa errealitate honetara egokitu beharko dugula. Baina ezin duguna inolaz ere da batzuek margotzen diguten egoeraren aurrean etsitua. Guk ezin dugu onartu urteetan zehar lan munduan egindako aurrerapausoak krisi ekonomikoaren aitzakiaz bertan behera gelditzea.

(275) Enpresetan gure hizkuntza nazionalaren eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jardueri eutsi eta sustatu beharko ditugu. Eta gauza bera egin beharko dugu lan osasun eta ingurumenarekin lotuta dauden gaiekin.

(276) Dinamika hauek ezinbestez ekintza sindikalean integratu beharko ditugu eta horretan federazioen zein sektoreetako Nazio Komiteen papera (idazkarizekin batera) determinantea da.



## › **Ponentzia** **A**

2012ko ekainaren 21 eta 22an • Barañaingo auditorioan • Nafarroa



# 4. Gure organigramaren egokitzapenak



## 4.1. Biltzar Nagusia

(277) 1992. urtetik hona lau urteetako zikloek markatu dute LAB sindikatuaren jarduerara, ziklo horien abiapuntua eta amaiera gure Biltzar Nagusia izanik.

(278) 1995. urtean hauteskunde sindikalen prozesua beste era batera arautu zen (aldi trinkoa eta zenbaketa iraunkorra) eta honek prozesu honi ekiteko moduan sekulako aldaketak ekarri zituen. Gustatu ala ez, harrezkeroztik, eredu honek ekarri zuen deszentralizazioak sindikatuaren jardueran eragin handia izan zuen eta gure barruko dinamikak eta interbentzioak denboran mugatuz eta baldintzatuz joan zen.

(279) Honen ondorioz, sindikatuaren zikloa murriztuz joan da eta praktikan Biltzar Nagusietan sindikatuak hartutako erabakiak eta finkatutako erronkak aurrera ateratzeko lau urteak "motzak" gelditu zaizkigu.

(280) Egoera hau gainditu nahian, Biltzar Nagusien arteko lau urteko ziklo hau bost urtetara pasatzea proposatzen dizuegu.

## 4.2. Nazio Biltzarra

(281) Organo honek gure organigraman duen garrantziaz askotan hitz egin dugu. Proposatzen dugun aldaketak ez die bere funtzioei eragiten, baizik eta bere osaketari, sindikatuaren errealitateari hobeto egokitzearen.

(282) Azken Biltzar Nagusian 150 kidek osatutako organoa zela ezarri genuen, baina organoaren funtzionamenduak berak kopuru hori erreala ez dela erakutsi digu. Beraz, lau urteko funtzionamendu horrek kopurua doitzera eraman gaitu eta, hortaz egiten dugun proposamena 130 kidek osatzea da.

(283) Nazio Komiteko kideak  
Federazio Komiteak  
Eskualdeak 40  
Sektoreak 40  
Irizpide nazionalak 2

## 4.3. Komite Exekutiboa

(284) Gure balorazioari segidan emanez eta urte hauetan izandako gabeziak gainditzeko asmoz, sindikatuaren beste fase batzuetan exekutiboan kokatuak zeuden bi ardura berreskuratzea planteatzen dugu.

(285) Ekintza sindikaleko eta negoziazio kolektiboko ardura. Bere funtzio nagusiak ondorengoak izango lirateke: ekintza sindikalean zein negoziazio kolektiboan sindikatuaren interbentziok diseinatzea, hauei izaera integrala emanda, eta sindikatuaren ekintza sindikalaren garapenaz arduratzen diren gune desberdinak elikatzea.

(286) Horretarako ardura honek bi tresna nagusi izango ditu, federazioetako arduradunen laguntza eta Ekintza Sindikaleko Batzordea.

(287) Zeharlerroetako ardura. Honen helburua plan estrategikoak inplementatzea eta segida ematea da.

(288) Horretarako, ardura honekin batera Emakumeen Idazkaritza eta Euskararen Idazkaritza kokatzen ditugu.

(289) Bestetik, politika ekonomiko eta sozialen garapenean, arduren berkokapena egingo genuke. Idazkaritza Tekniko Ekonomikoa politika sozialekin lotutako gune bilakatuko genuke eta Batzorde Sozioekonomikoan zein Nazio Komitean kokatuko litzateke.

### **4.4. Eskualdeak**

(290) Lurralde egituraren organigramari dagokionez planteatzen dugun aldaketa bakarra Hernani-Astigarraga zonaldeari dagokio.

(291) Zonalde hau Donostialdea eskualdean egotetik Tolosa-Goierri eskualdean egotera pasatuko litzateke.

(292) Aldaketa honek eskualdearen egungo izaerari erantzuten dio. Izan ere, Donostialdean zerbitzu pribatuak sekulako pisua daukate eta Hernanialdean, berriz, industria da nagusi. Honetaz gain, Donostialdean garatu behar den hiriburu dinamikak erabat baldintzatzen du Hernanialdean burutu behar den garapena.

### **4.5. Prestakuntza Idazkaritza**

(293) Prestakuntza ezin da izan momentuko beharren arabera funtzionatzen duen idazkaritza. Prestakuntza sindikatuaren egunerokotasunean integratu behar da, sindikatuak dituen erronken jabe izan behar da eta horien aurrean proposamenak egin.

(294) Balantzean esan dugunez, prestakuntzak sindikatuaren beharrak aurreikusi behar ditu, hau da, eskaerari erantzuteaz gain, eskaintza bat diseinatu behar du. Sindikatuaren egunerokotasunean integratzea esaten dugunean, honetaz ari gara.

(295) Horretarako bitartekoak jarri beharko ditugu eta zuzendaritza eta idazkaritzaren arteko komunikazio bideak indartu eta trinkotu.

### **4.6. Lan Osasun Idazkaritza**

(296) Duela lau urteko apustuari segida emanik, idazkaritza hau gure ekintza sindikalean txertatzen jarraitu nahi dugu.

(297) Lan osasuna ezin da izan sektoreetan dauden gabeziak estaltzeko petatxua. Honek ez du esan nahi eskakizunei eta beharrei erantzungo ez diegunik, baina bai uzten du argi gure helburua zein den.

(298) Lan osasuna gure ekintza sindikaleko atal garrantzitsua da eta, beraz, lan osasuneko dinamikak eguneroko interbentzioetan integratuta egon behar dira. Honek, ezinbestez, lan osasuneko interbentzioa sektoreetan eta federazioetan dauden organo eta kideen bidez egitera eramaten gaitu.


(299) Lan osasunaren inguruko arazoak oso konplexuak dira eta kasu askotan ezagutza teknikoaren beharra dago landu ahal izateko.

(300) Bi gogoeta hauek lan osasunaren inguruko interbentzioa bi eratan kokatzera eramaten gaitu: bata ofentsiboa, interbentzioari begira (sektore zein federazioetan), eta bestea asistentzial-teknikoa, eguneroko kasu askoren aholkularitza eta kontsultei zuzenduta.

(301) Hori dela eta, bi esparru bereizten eta uztartzen jarraitzen dugu, nahiz eta lehenengoari pisua eta zentralitatea eman. Denboraz gure helburua sektoreetatik lan osasuneko interbentzio integrala egitea izan behar da.



# LABeko organigrama





## › Estatutuak

# 1. artikulua: LABen ezaugarriak

## 1.1. Sindikatu abertzalea

Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzen du LABek. Eta ondorioz, herritarrei, oro har, dagokie euren oraina eta geroa erabakitzea, autodeterminazio askea gauzatzeko eskubidea, nazioartean onartua, erabiliz. Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa herrialdeek, egun Frantziako Estatuaren menpe, Euskal Herria osatzen dute, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa Garaia herrialdeekin batera, hauek, berriz, Espainiako Estatuaren menpe. Beraz, horixe da jarduteko eta antolatzeko eremua, Euskal Estatu independentea, sozialista, euskalduna, ez-patriarkala eta ekologista eraikitze asmoz.

## 1.2 Sindikatu euskalduna eta abertzalea

Herri gisa, Euskal Herriaren nortasunaren oinarritzko elementua dugu euskara. Beraz, LABek bere gain hartu eta konpromisoa hartzen du, lan munduan zehazki, euskara bere onera ekarri eta nazio hizkuntza gisa normalizatuko dituzten politikak garatzeko eta sustengatzeko. Bere jardueran erabiliko du euskara. LABek argitaratuko dituen idazki guztietan euskaraz idatzitakoa izango da bertsio ofiziala. Euskaraz aritzeko gai ez diren egiturako lagun orori plangintza egingo zaio epe jakin baten barruan ikas dezan eta normaltasunez erabil dezan; eta gainera, euskara baldintza izango da kontratuak egiteko orduan.

## 1.3 Sindikatu soziopolitiko

LABek, klase-sindikatu denez, langile guztien bizi eta lan baldintzak hobetzeko eskatzearekin batera, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalean eta sozialean langileriaren parte-hartze aktiboa aldarrikatzen du. Langile klasea subiranotasunaren aldeko borrokan buruan joan behar delakoan dago sindikatu, jendarte askea, solidarioa eta parekatzailea lortzeko, non pertsonak ez baitira izango baztertuta arraza edo jatorria direla eta.

## 1.4 Sindikatu burujabea

LABek bere autonomia aldarrikatzen du edozein alderdi politikoren, instituzioren edo presio-talderen aurrean. LABeko zuzendaritza-organoek onetsitako ebazpenei bakarrik egingo dio men. Antolaketa askatasunik abiatuta, lehentasunezko hartu-eman eta eztabaida ezker abertzalearen gainerako antolakundeekin izango ditu, jendartea eraldatzeko eta herria askatzeko prozesuan aurrera joaten posible egingo duten estrategia komunak bilatzeari begira.

## 1.5 Emakumeen eta gizozen sindikatu

Estrukturala da emakume langileek eremu guztietan pairatzen duten zapalkuntza, eta sexuaren arabera lan-banaketa datza arazoaren iturria. LABek bere burua lotzen du zapalkuntza horren aurka borrokatzera; eta horretarako, bai lan munduan bai antolakundeetan eta, oro har, jendartean mota guztietako genero-bereizkeria errotik kentzen jardungo du. Erabakigunetan emakume langileen parte-hartze zuzena, aktiboa eta orekatua bilatuko du. Langile orok aukera berdinak izateak berarekin dakar emakumeentzako ekintza positiboko neurriak abiaraztea, hala nola, LABen antolaketa osoa eta kanpoko zein barneko esku-hartze eremu guztiak bere baitan dituen zeharkako ikuspegia erabiliz.

Halaber, sexu-joera dela medio, Euskal Herrian pertsonak pairatzen duten bereizkeriaren aurkako borroka bere gain hartzen du LABek, baita gay eta lesbianak askatzearen aldekoa ere. Eta aurre egingo die antola-

## › Estatutuak

kundearen baitako zein lan munduko jarrera homofoboerik. Pertsona guztiek eskubide berdinak izatea bermatzen duten neurri eta proposamen ez-diskriminatzaileak sustatuko ditu sindikatuak, joera homosexualengatiko eta lesbikoengatiko bereizkeriarik gabe.

### **1.6 Sindikatu internazionalista**

Argi eta garbi adierazi nahi dugu gizon-emakumeek irtenbiderik ez dutela neoliberalismoak ezarritako egoeran oinarrituz gero. Eta aldarrikatzen dugu neoliberalismoaren aurkako borrokak munduko pertsona zapaldu guztien batera jotze solidarioa duela ardatza. Nazio aldarrikapena eta herrien determinazio askearen eskubidea klase-borrokaren eragiletzat hartzen ditugu, berez, bidezko aldarrikapena baita eta globalizazioaren logikari errotik aurre egiten baitio. Izan ere, globalizazioak berak herrien baliabide naturalak bidegabe ebatsi, euren jendarteak desegituratu eta euren herritarrak gosetera eta atzerriratzen joarazten ditu. Demokraziaren eta justizia sozialaren aldeko borrokan dauden herri guztiei laguntzeko konpromisoa babesten dugu. Ezaugarri hauek guztiak kontuan hartuz, helburu berdinak sustatzen dituzten sindikatuekin, bereziki, harremanak sendotuko ditu LABek.

### **1.7 LAB eta ekologia**

Garapen kapitalistaren ereduak ustiatu eta arpilatu beharreko elementutzat hartzen du izadia, eta ondorioz, guztion existentziaren oinarriak suntsitzen ari da. Nabariak dira gure ama lurra orain arteko hondatzeak: berotegi-efektua, basamortutzea, lurra, uraren eta airearen kutsadura. Gauzak horrela, LABen iritziz, borroka ekologikoak estrategia-kutsu nabarmena du, Lurraren, eta ondorioz gizon-emakumeon, biziraupenaren aldeko bataila baita. Garapen-joerak errotik aldatzearen alde agertzen gara, babes sozial handiko itunaz baliatuz eta diagnostiko komuna eginez. Hori da bidea Euskal Herrian ingurumena lehengoratzeko zimendua ezartzeko, garapen orekatuan oinarrituriko ereduaren aldeko apustua eginez, eta bizitza kalitatea eta ekosistema berreskuratuz.



## 2. artikulua. Izena, ikurra, logotipoa eta lurralde eremua

### 2.1. Izena eta lurralde eremua

Sindikatuaren izena Langile Abertzaleen Batzordeak da, eta hauexek dira siglak: LAB.

LAB antolatuko da eta bere jarduera garatuko du Euskal Herria osoan, hau da, Araban, Behe Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin, Nafarroa Garaian eta Zuberoan.

### 2.2. Ikurra eta logotipoa

LABen ikurra horrelakoa da: zirkulu baten erdian argizaiola jarrera horizontalean dago, beheko aldean LABen inizialak euskal grafiaz eta erdian tximinia ikurrina puntan gain jartzen dira. Sindikatuaren historia ordezkatzeko du, eta bakarrik erabiliko da hotsandiko ekitaldietan eta ospakizunetan.

Logotipoa, berriz, bandera irudikatzen duen laukizuzena da, barruan letra larriz eta Rockwell ertaineko estiloaz siglak idatzita daude, hondo hutsa du eta beheko aldean marra bat du. Komunikazio-irizpideak direla medio, egoki baderitzo, logotipoa aldatu ahal izango da. Komunikazioak Nazio Komiteari aldaketak proposatuko dizkio eta Nazio Biltzarrak onetsi beharko ditu.

## 3. artikulua. Helburua eta egitura

LABen helburua Euskal Herriko langileak antolatzea da, euren nazio eta klase eskubideak defenda ditzaten.

Horretarako, LABek egitura bikoitza du: sektoriala eta lurraldekoa:

- Sektoriala: Sail Sindikalak, Eskualdeko Sektoreko Komiteak, Sektoreak eta Federazioak
- Lurraldekoa: herri biltzarrak eta eskualdeak.

# 4. artikulua. Afiliazioa

## 4.1. Afiliazioa

Langile orok aukera du LABen afiliatzeko, baldin eta, oinarriak onartu, estatutuak bete, sindikatuaren organo ezberdinen erabakiak errespetatu eta kuotak ordaintzen baditu.

Arrazoi politikoengatik preso dauden lagunek, LABekin hartu-emana nahi badute, afiliatu izaera izango dute (gatibu-egoerak berak utziko ez dituen zereginetan salbu), eta kuota ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Pertsona hauekiko harremanari bide emango zaio une bakoitzean erabakiko den moduan.

## 4.2. Afiliazioaren altak

Nork bere afiliazioa libreki erabakitzen du, eta era berean bere lurraldean edo dagokion sektorean egin ahal izango du.

Afiliatio berri bat erabaki behar denean, lurraldeko egitura eta sektoriala ados jartzen ez badira, azkeneko erabakia hartuko du Komite Exekutiboak.

## 4.3. Afiliatuen eskubideak

Afiliatuta dauden pertsona guztien eskubideak dira:

- Jakingarritzat jotzen diren afera guztietan informazioa jasotzea eta hitza izatea.
- Ezarritako baldintzen arabera aholku sindikala jasotzea.
- Dagozkien eremuetako eztabaidetan eta erabakietan parte hartzea.
- Biltzar Nagusietara delegatu gisa joatea eta ordezkaritza-organoak hautatzea, betiere 6 hileko antzintasuna egiaztatzen badu.
- Antolakundearen egituretarako hautagai eta hautetsia izatea, baldin eta urtebete baino gehiagoko antzintasuna badu eta kuoten ordainketa egunean badu.
- Sindikatuaren nazio aldizkaria jasotzea.
- Afiliazio-fitxan jasotako norberaren datuak isilpekoan babestea, eta sindikatuaren interesak ez diren zereginetarako ez erabiltzea.
- Afiliatu orok, afiliatua izateagatik dagozkion eskubideak babestu nahian, edozein interes-gatazkatan edota zehapen-prozeduratan Berme Batzordeak esku hartzeko eskatu ahal izango du, sindikatuan daukan ardura gorabehera.
- Organo eskudunek hartutako barne neurriek, erabakiek edo akordioek afiliatu bati eragiten diotenean, erabaki horien aurka ondo deritzon helegiteak eta eskaerak Berme Batzordearen aurrean aurkezteko aukera izango du afiliatuak.
- Borroka Kutzaren ekarpena eskatzea, ezarritako baldintzak betetzen baditu.

## 4.4. Afiliatuen betebeharrak

Afiliatuta dauden pertsona guztien betebeharrak dira:

- Estatutuak betetzea.
- Egiturek hartutako erabakiak betetzea eta errespetaraztea.
- Kuota ordaintzea, ezarritako kopuruaren eta maiztasunaren arabera.
- Hartuko diren erabakiak eta deliberamenduak isilpean gordetzea.

### 4.5. Afiliatuen bajak

Arrazoi hauek direla medio afiliazioa kenduko da:

- Afiliatuak nahi duelako.
- Hiru hiletan kuotarik ez ordaintzeagatik.
- Sindikatuaren organo eskudunen zehatzeko ebazpen irmoa dagoelako.
- Genero indarkeriagatik edo sexu jazarpenagatik epai irmoa baldin badago.
- Hauteskunde sindikaletara aurkezteagatik, betiere LABek ontzat hartzen duen hautagaitzan ez bada, eta zuzendaritza-organo eskudunaren beren-beregiko baimenik ez badu.

### 4.6. Kuota

Nazio Komiteak, Komite Exekutiboak proposatuta, kuoten diru-zenbatekoa erabakiko du.

KPIren ondorioz kuotaren kopurua igotzen denean, automatikoki aplikatuko da, eta ez da beharrezkoa izango Nazio Komiteak onestea.

### 4.7. Sindikatuaren nazioarteko afiliazioa

Honako nazioarteko konfederazio hauen partaidea da LAB:

- Munduko Federazio Sindikala
- Estaturik gabeko Nazioetako Sindikatuen Plataforma

# 5. artikulua. Disziplina araubidea

## 5.1. Zehatzeko zioak

Afiliatuak ez baditu estatutuak edo sindikatuaren organoen erabakiak betetzen, edota sindikatuaren xedeen aurka jarduten badu, falta zenbaterainokoa den ikusita, bidezko zehapen-neurria aplikatu ahal izango zaio.

## 5.2. Falten sailkapena

Faltak honela sailkatuko dira, ez betetze maila eta kasuz kasuko egoera nolakoak diren aintzakotzat hartuta: Arinak, astunak eta oso astunak.

## 5.3. Zehapen neurriak

Zehapenak honako hauek izango dira:

- Arinak: Ohartaraztea.
- Astunak: hilabetetik urtebete arteko afiliazioa etetea.
- Oso astunak: Kanporatzea.

Hartu beharreko zehapen-neurria kanporaketa balitz, eta kanporaturiko pertsonak edo pertsonak Berme Batzordearen aurrean helegitea jarriko balute, beronek irizpena eman arte, euren eskubideak eta eginbeharrak etengo lirateke.

## 5.4. Prozedura

Zehapen neurriren bat hartzen denean, ondoko prozedurarekin bat etorriko da:

- Prozedura hasiko da goiko egiturak eskatuta, honako epe hauen barruan:
  - Falta arinak: hilabetea
  - Falta astunak: hiru hilabete
  - Falta oso astunak: sei hilabete
- Txosten bat egingo da, eta gutxienez ondokoa jaso beharko du:
  - Zehatu beharreko gertakarien azalpen zehatza.
  - Ez betetze maila zenbaterainokoa izan den zehaztu.
  - Faltaren sailkapena era arrazoituan azalduta.
  - Zehapen proposamena.
- Prozedurapean dagoen pertsonari txostena helaraziko zaio, hamabost eguneko epean ondo eta egoki deritzan adierazpenak egin ditzan.
- Adierazpenak jaso edota epea agortu ostean, hamabost eguneko epearen barruan erabakitako zehapena jakinaraziko da.
- Zehapena jakinarazi eta hortik 15 egunera, zehapena jaso duen pertsonak idazki arrazoituaren bidez Berme Batzordearen aurrean helegitea jarri ahal izango du.
- Berme Batzordeak hogeita hamar eguneko epearen barruan ebatzi beharko du, eta euren ebazpena loteslea izango da antolakunde osoari.

## 6. artikulua. Berme batzordea

Egitura honek bermatuko du estatutuak eta Biltzar Nagusiak hartutako erabakiak errespetatzen direla. Estatutuen eta erabakien gaineko interpretazioaren ardura du, eta diziplina-afereetan aurkeztuko diren helegiteak, banakakoak zein taldekoak, ebatziko ditu.

Lehendakariak, lau batzordekidek eta bi ordezkok osatuko dute Berme Batzordea, eta, Nazio Komiteak kargu guztiak proposatuta, Biltzar Nagusian hautatuko dira. Titularrak izango diren artean, gehienez jota, Nazio Komiteko bi egon daitezke. Lehendakariak erantzukizuna izango du txostenak hartzeko eta Batzordearen deialdia egiteko.

Berme Batzordearen zereginak honako hauek izango dira:

- Estatutuen inguruko interpretazioa egitea.
- Afiliatuen arteko, afiliatuen eta edozein organoren arteko, eta organo ezberdinen arteko liskarretan esku hartzea.
- Sindikatuko organo nagusien erabakiak errespetatzen direla zaintzea.
- Sindikatuak hartzen dituen erabakien inguruko interpretazioa egitea.
- Afiliatuen arteko liskarretan eta diziplina gaietan parte hartzea.
- Prozedura hau martxan jarriko da egitura batek zein afiliatu batek edo batzuek eskatuta.

Berme Batzordeak soilik jardungo du, esku hartzeko eskatzen bazaio idatziz; eta bakarrik gatazka-eremuan hertsiki arituko da. Gehiengo osoz hartuko dira erabakiak.

# 7. artikulua. Zuzendaritza egitura eta organo konfederalak

## 7.1. Zuzendaritza organo konfederalak

Zuzendaritza organo konfederalak hauexek dira: Biltzar Nagusia, Nazio Biltzarra, Nazio Komitea eta Komite Exekutiboa.

## 7.2. Biltzar Nagusia

Eztabaidatzeko organo nagusia eta gorena da. Bertan estrategia orokorra eta berau garatzeko beharrezkoak diren antolatze-aldaketak erabakitzen dira.

Bostehun delegatuk osatzen dute. Nazio Komiteko kideak Biltzar Nagusiko kideak ere izango dira. Gainerako kideak afiliatuen eskualdeko batzarretan aukeratuko dira. Eskualde bakoitzean hautatu beharrezko ordezkari kopurua afiliazioaren arabera finkatuko da, aurreko abenduko datuen arabera.

Hautaketa hori egiterakoan, berdintasun irizpidea kontuan hartuko da. Halaber, eskualde bakoitzeko afiliazioaren proportzioa oinarri hartuta, afiliatuen arteko partaidetza zuzena eta parekoa bermatuko da.

Biltzar Nagusiaren kidea izateko bi baldintza eskatuko dira: batetik, sei hileko antzintasuna, gutxienez; eta bestetik, kuoten ordainketa egunean izatea.

Biltzar Nagusia, orokorrean, bost urtean behin deituko da.

Biltzar Nagusia orokorrean deitzeko, Nazio Biltzarraren bidez egingo da, Nazio Komiteak proposatuta; eta gutxienez, sei hilabete aurretik egingo da deialdia.

Biltzar Nagusia batu baino lehen, Nazio Biltzarrak kongresurako araubidea eta emendakinen lanketa onetsiko ditu, Nazio Komiteak proposatuta.

Biltzar Nagusia ez ohiko deialdiaz ere batu ahal izango da. Nazio Biltzarrak deialdia erabakiko du, espresuki horretarako bilduta, eta Nazio Komiteak proposatuta. Dena den, Nazio Biltzarreko kideen bi herenek edota, gutxienez, afiliatuen %10ek ohiko deialdirako proposamena babestu beharko dute.

Ez ohiko Biltzar Nagusiari dagokionez, deialditik biltzarra egitera doan epea murriztu ahal izango da, betiere bi hileko tartea, gutxienez, utziz gero.

Ez ohiko Biltzar Nagusiak bakarrik jorratuko ditu deialdirako onartutako gaiak.

Behar bezala osatuta egongo dira, baldin eta kideen erdiak eta bat agertzen badira eta zuzen deituta baldin badaude.

Biltzar Nagusiaren eskumenak

- Sindikatuaren interbentziorako estrategia orokorra finkatu.
- Antolakuntza egitura onartu eta egokitu.
- Estatutuak onartu eta egokitu.
- Nazio Komitea hautatu. Hautaketarako, zerrenda itxia ezkutuko bozka erabiliko dira.

- Berme Batzordea hautatu.

### 7.3. Nazio Biltzarra

Eztabaida eta erabaki organorik nagusia; Biltzar Nagusien arteko tartean.

130 kidek osatzen dute:

- Nazio Komiteko kideak.
- Federazioen komiteetako kideak.
- Eskualdeetatik 40 lagun: 17 finko, gainerakoak afiliazioaren arabera.
- Sektoreetatik 40 lagun: 2 finko, gainerakoak afiliazioaren arabera.
- Egituratu gabeko bi nazio arduradun, Nazio Biltzarrak hautatuko ditu Komite Exekutiboaren proposamenaz.

Nazio Biltzarra osatzen duten kideak hautatuko dira Biltzar Nagusia burutu ostean, gehienez jota, hiru hileko epearen barruan. Nazio Biltzarkidea izateko, gutxienez, urtebeteko afiliazioa eskatuko da.

Hautaketa hori egiterakoan, berdintasun irizpidea kontuan hartuko da. Halaber, eskualde bakoitzeko afiliazioaren proportzioa oinarri hartuta, afiliatuaren arteko partaidetza zuzena eta parekoa bermatuko da.

Nazio Biltzarra euskaraz arituko da. Horretarako, biltzarkideak gai izan beharko dira euren jarduera euskaraz egiteko.

Nazio Biltzarra osatzen duten lagun guztiak izeneko karguari lotuta daude, eta Biltzar Nagusien arteko tartean dagokion ardura izango dute. Kide horiek behin betikoz ordezkatzeko, behar bezala arazoitu beharko da.

Nazio Biltzarrak zuzen osatuta egongo dira, baldin eta kideen erdiak eta bat agertzen badira eta modu egokian deituta baldin badaude.

Ebazpenak eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Bozak ezin izango dira inoren esku utzi.

Urtean bi aldiz, gutxienez, batuko da.

Nazio Biltzarraren zereginak dira:

- Biltzar Nagusien deialdiak egin eta araudiak onartu.
- Biltzar Nagusian hartutako ebazpenak bete daitezen zaindu.
- Biltzar Nagusian finkatutako ildoetan sakondu eta berauek garatu.
- Biltzar Nagusian jorratu edo finkatu ez diren ildo estrategikoak lantze eta onartu.
- Sindikatuaren urteko esku-hartzearen eremuak eta dinamikak finkatu eta ebaluatu.
- Sindikatuak dituen eta izan ditzakeen esku hartzeko eremu estrategikoak zehaztu eta ebaluatu.
- Zuzendaritza organoetan gertatuko diren bete gabeko postuak bete, Nazio Komiteak eginiko proposamenaren arabera.
- Nazioarteko erakundeei atxikimendua onartu.
- Sindikatuaren organo eta batzorde ezberdinen arautegiak onetsi.
- Nazio Komiteko zein Exekutiboko kideen kopurua aldatu.
- Nazio Komitean aldatetako egiten direnean, Nazio Komiteak proposatuta, kide berriak berretsi.
- Nazio Komiteak proposatuta, Komite Exekutiboko edozein kideri, eskualdeko idazkariei eta nazio ardurak sektoriala dutenei kargua utzarazi.
- Nazio mailako greba orokorretarako deialdiak egin edo halako deialdiekin bat egin ala ez erabaki.
- Zeregin hauetatik guztietatik gain, estatutuek esleitzen dizkieten eskumenak kudeatu.



## 7.4. Nazio Komitea

Zuzendaritza organoa da; Biltzar Nagusiaren eta Nazio Biltzarraren ebazpenak betearazten ditu.

Komite Exekutiboko ardura guztiek, eskualdeko idazkariak eta idazkaritzek osatzen dute.

Hautagai izateko adinik altuena 55 urtekoa izango da. Hautatua izango den unean, gutxienez, urte beteko afiliazioa izan beharko du sindikatuan, ez bada salbuespenaren bat kontuan hartu.

Nazio Komitean, jarraian eta ardura berean, ezin izango da 15 urte baino gehiago egon. Berritze-politika hori gauzatu ahal izateko, plangintza egingo da.

Organo honetan emakumeak, gutxienez, %40 izango dira.

Gutxienez, hiru astean behin batuko da. Nazio Komitea zuzen osatuta egongo da, baldin eta kideen erdiak eta bat agertzen badira. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

Nazio komiteko bilerak euskaraz egingo dira; eta batzordekideak gai izan beharko dira euskaraz la egiteko. Nazio Komitearen eskumenak dira:

- Biltzar Nagusian eta Nazio Biltzarrean erabakitako interbentzio ildoak praktikan jarriko ditu.
- Nazio Biltzarreko deialdiak egin eta dinamizatu egingo du.
- Nazio Biltzarrari Biltzar Nagusian finkatu ez diren ildo estrategikoak lantzeko eta onartzeko proposamena egingo dio.
- Sindikatuaren esparru guztien lehentasunak finkatu eta lan ildoen plangintzak zehaztu, onartu eta ebaluatu.
- Bere jarduera egiteko beharrezkotzat jotzen diren batzorde edo egiturak sortuko ditu.
- Sindikatuaren izenean hainbat erakundetan parte hartuko duten ordezkariak hautatuko ditu.
- Sindikatuko edozein kide kargugabetzea eta ordezkatzeara erabakiko du.
- Nazio Komiteko zein Komite Exekutiboko edozein kide kargugabetu eta Nazio Biltzarrari hauen ordezkapena proposatuko dio.
- Federazioetako interbentzio arduradunak hautatuko ditu.
- Sektoreei beren arduradun nazionalen izendapena proposatuko die eta, beharrezkoa balitz, kargugabetuko ditu.
- Sindikatuaren interbentzio esparru propioen politiken jarraipena egingo du (politika sozialak, ekonomikoak, industrialak, e.a.).
- Egoera politiko, sozial zein sindikalari buruz gogoeta, hausnarketa eta ekarpenak egingo dizkio sindikatuko militantziari zein euskal jendarteari.
- Edozein auzitan sindikatu epaitegian aurkeztuko den ala ez erabakiko du.
- Batzordeen dinamiken jarraipena eta ebaluazioa egingo du.
- Sindikatuaren urteroko aurrekontua onartuko du.
- Nazio Biltzarrari kuotaren aldaketa proposatuko dio.
- Sindikatuko liberatuen soldatak onartuko ditu.
- Liberatuen barne araudiaren aldaketak erabakiko ditu.

## 7.5. Komite Exekutiboa

Zuzendaritza organoa da, eta Nazio Komiteak eta Nazio Biltzarrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Biltzar Nagusiak erabakiko du komitean zenbat ardura dauden eta organoa zenbat kidek osatzen duten, hala ere, Komite Exekutiboari esleitutako lanen arabera izango da beti. Izan ere, kide bakoitzak eginkizun zehatzak izango ditu.

Komite Exekutiboko kidea izateko, gutxienez, bi urte beteko afiliazioa izan beharko du sindikatuan, ez bada salbuespenaren bat kontuan hartu.

## › Estatutua k

Organo hau parekidea izango da.

Astero batuko da. Zuzen osatuta egongo da, baldin eta kideen erdiak eta bat agertzen badira. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

Komite Exekutiboko bilerak euskaraz egingo dira.

Komite Exekutiboren eskumenak dira:

- Nazio Komitea deitu eta dinamizatuko du.
- Nazio Komitean, Nazio Biltzarrean zein Biltzar Nagusian hartzen diren erabakiak bete daitezzen zainduko du.
- Interbentzio ildoak eta sindikatuaren dinamikekin bat datozen ekimenak Nazio Komiteari proposatuko dizkio.
- Sindikatuaren interbentzio esparruan dauden eragile desberdinekin harremanak kudeatuko du.
- Hainbat eremutan sindikatuak izan beharreko ordezkartzaren ardura bere gain hartuko du.
- Nazio Komiteari sindikatuko edozein kideren kargugabetzea eta bere ordezkapena proposatuko dio.
- Urteko aurrekontuak onartzeko Nazio Komiteari proposatuko dizkio eta honen jarraipena egin eta sindikatuaren ekonomiaren bilakaera aztertuko du.
- Bitartekoak jarri beharko ditu sindikatuko egiturekin komunikazio iraunkor eta zuzena bideratzeko.
- Egituretan sor daitezkeen arazoen jarraipena eta kudeaketa egingo du, egiturekin batera.
- Sindikatuaren izenean hainbat erakundetan parte hartuko duen ordezkartzita proposatuko dio Nazio Komiteari.
- Liberatu berrien kontratazioa onartu, arituko diren egiturekin kontsultatu eta onartua izan ondoren.

Osaketa:

- Idazkari Nagusia.
- Idazkari Nagusiaren Ondokoa.
- Komunikazioa Idazkaria.
- Ekintza Sindikaleko eta Negoziazio Kolektiboko Idazkaria.
- Zerbitzu Publikoetako Federazioko Idazkaria.
- Zerbitzu Pribatuetako Federazioko Idazkaria.
- Industria Federazioko Idazkaria.
- Zeharkako Politiketako Idazkaria.
- Politika Sozialetako Idazkaria.
- Enplegu Politiketako Idazkaria.
- Nazioarteko Idazkaria.
- Hedapenerako eta Finantzatarako Idazkaria.
- Antolakuntza Idazkaria.

